

erreka labur mehe
herdoil urez betea.
Han ibiltzen ginen, antzina,
hango Harripausuetan...

Ez da Danubio deitzen,
ez Nilo, ez Niagara,
Ibaizabal deitzen da nire
sorterriko ibaia.
Handik alde eginda,
zubirik zubi beti,
ez nuen uste berri
topatuko nuenik.
Orain barruan ser
Ibaizabaleko


Ez dakit ze
ura ba
Inoiz ec
Ib

Ilustrazioa: Nəgore Txintxurreta

50. Durangoko Azoka

*“Memoriako
herritarra naiz”*

Joseba Sarrionandiari elkarrizketa > 2-3





Durangoko Azokaren hasieretako edizioa, oraindik zuri-beltzean.



Andra Mariko elizpeak jaso zituen lehenengo azokak.

“Ez nabil Martin Larralderen besteko zoritxarrarekin, eta bueltatuko naizela uste dut”

Joseba Sarrionandiak Ibaizabal ingurutik alde egin zuenetik urte ugari pasa dira, baina Durangoko Azokan presente egon izan da

> ELKARRIZKETA M.Onaindia
1985ean, bozgorailu baten sartuta, Martuteneko kartzelatik ospa egin zuenetik, ihesean edo exiliatuta bizi izan da Joseba Sarrionandia idazlea (Iurreta, 1965). Txikitik ezagutu zuen Durangoko Azoka, eta luzaroan bertan egon ezin izan den arren, bere lumarekin presente egon da. Mito bihurtuta, bere itzuleraren inguruko zurrumurruak urterik urte indartzen joan dira. Noiz ez dakigu, baina bueltatuko dela uste du Garaizarreko mutilak. Herri-minik ez du dagoeneko, baina barruan darama Ibaizabaleko ur uherra.

Durangoko Azokarako liburua idatzi duzu Jesus Mari Arrubarrenagaz eta Txelu Angoitia-gaz batera. Zelan gogoratzen dituzu lehengo sasoiak? Zelan jarraitu duzu azoka urrunetik? Zortzi edo bederatzita urterekin joango nintzen Azokara lehenengo, Andra Mariko elizpean

egiten zenean. Martxanterak ere han lekuren batean izango ziren orduan. Gauza berezia zen, euskararen aterpea; euskal astea derrepente erdal urtean.

Azokaren sortzaile Gerediaga Elkartea urte hartan jaio zen. Haiek bai gazte ausartak, ezta? Ausartak izan behar sasoi hartan, euskara korrontearen kontrako gauza zelako. Euskara hiririk kanporatuta zegoen. Mendikoen gauza zen bakarrik, eta hori denok asumitzen genuen era batean edo bestean.

Zure idazlanetan sarritan agertu izan da inguru hau: Garaizar, Goiuria, Iurreta, Durango... 'Akordatzan' liburua edo 'Ibaia' abestia dira seguruenik adibide esanguratsuenak. Idazteak herrimina leuntzen lagundu dizu? Herriminik ez daukat ja. Baina memoria bai, ume denborarena ere bai. Ni erdi memorian bizi naiz, batzuk Elorrion eta beste

“*Gauza berezia zen, euskararen aterpea; euskal astea erdal urtean*”

“*[Ibaia] bertako jendeak abestuta entzutea ederra izan da niretzat*”

batzuk Brasilen bizi diren lez. Ni Memoriako herritarra naiz. Gure Ibaizabal estuari egin nion letrak, Ruperren balsarekin, poza eman dit: bideo baten bertako jendeak abestuta entzutea ederra izan da niretzat.

la 30 urtez zara iheslari. Iheslariaren denbora ez al da eteten ihes egunean? Urte askotan ibili naiz ihesean,

polizia atzetik nuelako, eta iheslaritzat nuen nire burua. Ja ez dut uste, oraindik exiliatua naiz, baina ez nuke iheslaria naizenik esango, sedentario bizi naizelako. 'Iheslaria' zarena esanda korrika zabiltzala ematen du.

Urteotan literatur lan ugari argitaratu dituzu. Ordenagailu aurrean ordu asko pasatzekoa zara?

Idazmakina zahar bat daukat hor, tekletako letrak borratuta dituenak, eta ez didate sinetsiko orduak ematen ez ditudanik horretan. Baina nik idaztea baino nahiago dut irakurtzea, eta baten batek idazletzat hartzen nauenean, gogoia ematen dit korrejtzeko, irakurlea naizela esateko.

Egunero idazten duzu?

Egunero-egunero ofizialisten moduan ez. Baina idazlanen bat gogoan izanez gero bai, Moroan liburua [*Moroak gara behelaino artean?*] idazten, esate baterako,

urteak pasatu nituen ia egunero beharrean, eta aparteko ordu askorekin.

Hausnarketa ere egin izan duzu zure lanetan, eta hausnarketa politikorako liburu berri bat dakarzu aurten: “Lapur banden etika ala politika” deitzen da. Bai, politika deitzen den horren gaineko nire iritziak esplikatzan saiatzen naiz. Saiakera Felipe Alañari dedikatu diot.

Felipe Alaña?

Durangoko lagun bat zen, *Mata-derokoa*. Familiaz Otxandiokoa. 1978an edo, Iparraldera joan zen. Ez dut berari buruz ezer jakin orain egun batzuk arte. Hil dela eta erraustak bota behar zituztela Bakion-edo. Bestela ere aipatzen zen liburua horretan.

Zergatik aipatzen duzu?

Anekdotak bat kontatzen dut. 16 edo 17 urte genituela, bertsolaritzari buruzko hitzaldi bat antolatzen genuen Jesuitetako zinean,



JON ARRUBARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728



Azkonizaga
CRUZCAMPO • HEINEKEN • BUCKLER • AMSTEL • SHANDY • PEÑA CLARA • LA ASTURIANA
Ortuzar auzoa, 1 · 48213 Izurza (Bizkaia) · Tel./Faxa: 94 681 06 52 azkonizaga@azkonizaga.com
www.azkonizaga.com



San Agustinalde 2 - 1 48200 Durango Bizkaia
T: 94 621 54 88 info@juegobolos.com www.juegobolos.com

eta Guardia Zibilak kuartelera deitu gintuen. Sasoi hartan hitzaldien testua entregatu behar izaten zen astebete lehenago, makinaizkribua, itzulpenarekin eta kopiekin. Mugartegik bertso pare bat bota zuen, eta ez zeuden guk entregatutako paperean.

“*Idazmakina zahar bat daukat hor; tekletako letrak borratuta dituena*”

Bat batekoak baziren...

Horixe, eta kuarteleko sarjentuak exijitzen zigun inprobisatutakoa ere astebete lehenago izan behar zuela berak, itzulpenarekin eta kopiekin. Inprobisazioa zer zen azaltzen ahalegindu ginen Felipe eta biok, eta ez zigun ulertu. Uste dut haserretu egin zela gurekin, ulertu nahi ez zituen gauzak esplikatu nahi genizkiolako.

“*Gaztea nintzela tiro zuloak ikusten ziren Kurutziagako etxe hormetan*”

“*Arantza batzuk barrurantz itzulita, nork ez ditu bada?*”

‘Lapur banden etika ala politika’-n, kritika politikoaz gainera, autokritika ere badagoela diote. Gure artean autokritika falta dela uste duzu?

Bai, hemen besteari bota diogu beti errua. Gure burmuin-tramankulua horrela dago eginda, besteari botatzeko errua.

‘Herrira noa’ abestian zera zen nioen, besteak beste: “Gerra eta zoritxarra, ez da ezinbestekoa”. Gatazkak sufrimendua eragin du, eta oraindik ere badirau. Elkar barkatu edo elkar ulertu behar dugu?

Klaro ez dela ezinbestekoa, ergelkeria da gerran ibiltzea, baina, aldi berean, horixe da duguna, betidanik izan dena. Gerra luzetik gatoz: ni gaztea nintzela tiro zuloak ikusten ziren Kurutziagako etxe hormetan, eta indartsuenaren legea zen nagusi. Orain ere horrela dago mundua, Erromatarren sasoiaren bezala, besteak zanpatzeari eta bonbardatzeari, dena kontrolatzeari deitzen zaio bakea. Munduan dauden desberdintasun ekonomikoak eta injustiziak estatu poliziako eta militarizatuz baid ezin dira mantendu.


Duela urte eta erdi, erabakitze eskubidea eskatu zuten 150.000 lagunek baino gehiagok Durangotik Iruñerako giza

katean. Herritarren esku egon ahalko da erabakia? Eta zelan begiratzen diozu Kataluniako bideari? Badoaz?

Espainia da emaztea gaizki tratatzen duen eta dibortziatu nahi ez duen senarra bezalakoa. Ez da konturatzen maite badu eta bestearekin bizitzea nahi badu, ezin duela horrela tratatu, eta etxean nahi ez badu, ere ez. Etxetik irteten, paseo bat ematen ere ez dio utziko. Seguru biolentzia domestikokoaren antzeko portaerak izango dituela Espainiak Kataluniarekin hemendik aurrera.

Asko berba egin da zure itzulez. Ilusioa duzu? Martin Larralde ez zen sekula itzuli, baina bere eran arantzak barrurantz itzulita lez sentituko zara?

Bai, abesti horretako pertsonaia Martin Larralde Bordaxuri da, galerianoa, galeretan hil zena, Hazparnetik urrun. Ni ez nabil hainbesteko zoritxarrarekin, eta bueltatuko naizela uste dut. Arantza batzuk barrurantz itzulita, nork ez ditu bada? Okerragoa litzateke kirikinoak bezala, eztenak beste sartzeko izatea.



Ilustrazioa: Nagore Txintxurreta

Liburu berri bi, oroimena eta hausnarketa lantzeko

50. Durangoko Azokarako ekarpena egin du



‘Lapur banden etika ala politika’ lana.

DURANGO M. O.

Estilo ugaritako idazlea da Joseba Sarrionandia. Ipuinak, poemak, narrazio luzeak, saiakerak... Euskal literaturako egile garrantzitsuenetarikoa da, eta pentsalari lez ere eragin handikoa. Hor dago, esaterako, hainbeste hauts harrotu zituen *Moroak gara behelaino artean?* saiakera liburua. Durangoko Azokan arrakasta handiko liburuak aurkeztu

izan ditu, eta aurtien lan berri bi dakartza.

Batetik, *Durangoko Azoka 1965-2015* liburuan parte hartu du, Jesus Mari Arruabarrena eta Txelu Angoitiagaz batera. Bere umetako akordua hartu ditu sorkuntzarako oinarri.

Bestetik, *Lapur banden etika ala politika* saiakera argitaratu du. Gogoeta politikoak kritikatik eta autokritikatik landu ditu. Mondragon Unibertsitateko graduondoko baterako berbaldi bi idatzi zituen Sarrionandiak, eta horiek daude oinarrian. Azken hamar-kadetako bilakaera aztertzeke 24 testu daude lehenik, eta bigarrenik, ikasleek egindako iruzkinak.

MIEKO 4D
ESPECIALISTAS EN ECOGRAFÍA PRENATAL

Orain, Durangon, MiekO4D
Zure ekografiarik osatuena 50 eurotik gora, eta 20 euroko beherapenak bigarren ekografiatik aurrera.

Ollería, 5 etxabea DURANGO · Tel.: 690 048 681

Anboto TABERNA JATETXEA
Goienkale kalea, 14 | Durango | Tel.: 946 811 020

- eguneko menuak - menu bereziak - karta -
- era guztietako pintxoak - razioak -
Aurrekontuak kontsultatu konpromisorik gabe!

ARETO NAGUSIKO EGITARAUA

ABENDUAK 4, BARIKUA

10:30 'Ametsetik liburura'. Ikasleei zuzendutako bi saio, Euskal Editoreen Elkartearen eskutik.

13:30 'Irtzen hizkuntzaren armairutik'. Emun aholkulariak.

14:00 'Ondarea eta giza eskubideak'. Maider Marañá (Unesco Etxea).

14:30 'Miguel Jabier Urmeneta (1915-1988): Bigarren errepublika, Frankismoa eta Trantsizioa'. Roldán Jimeno eta Asisko Urmeneta.

15:00 'Berrikuntza politikoa. #Zubigintza'. Dr Igor Calzada (Oxfordeko Unibertsitatea) eta Jokin Bildarratz (senataria).

15:30 'Lur eta Amets. Euskal Herriaren historia: proiektua'. Ikastolen Elkarte, Katxiporreta eta Elkar argitaletxea.

16:00 'Euskal Herria, nora zoaz?'. Urtzi Ihiza.

16:30 'Historia jurídica de la lengua vasca'. Eneko Oregi (IVAP), Iñigo Urrutia (EHU) eta Xabier Irujo (Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroa).

17:00 'Deklinabide Baigorri'. Michel Oronos.

17:30 'Museoetan familia artean gozatu', mahai ingurua. Bizkaiko museoetako zuzendari eta hezkuntza teknikariak.

18:30 'Euskal Herria goitik behera: lana zeruan egiten'. Santiago Yaniz.

19:00 'Anboto'. Imanol Marrodan.

19:30 'Bizi Baratztea, garaian garaikoa garaiz'. Jakoba Errekondo.

ABENDUAK 5, ZAPATUA

GOGOETAREN PLAZA

Jakin eta Gerediagaren arteko lankidetzarekin.

PLAZA: 'Euskal kulturaren ikusgarritasuna'
Gidaria: Alberto Barandiaran

12:30 SOLASALDIA: Andoni Egaña eta Asisko Urmeneta.

18:00 MAHAI-INGURUA: Eider Rodriguez, Fermin Etxegoien eta Koldo Almandoz.

10:30 'Euskera-erderak', erkaketa saioa. Eñaut Etxamendi.

11:00 'Bost truke'. Jon Sarasua eta Jose Angel Irigarai.

11:30 'Educacion, Memoria e Historia de las mujeres vascas: lecturas feministas'. Karmele Bujan, Luz Maceira eta Julia Monge.

15:30 'Euskal Herrian bizitzeko Giza Garapen Indizea.' Independentistak Sarea.

16:00 'Gaztezulo aldizkari berria'. Aitor Abaroa (zuzendaria) eta Nagore Koch (diseinatzailea).

16:30 'Sozialismoaren historia labor bat'. Gorka Etxebarria (idazlea), Iñaki Rifaterra (marrazkilaria) eta Gorka Zozaia (GITE-IPES).

17:00 'Indarra zure baitan dago'. Ana Gisasola.

ABENDUAK 6, DOMEKA

GOGOETAREN PLAZA

Jakin eta Gerediagaren arteko lankidetzarekin.

ETXEA: Kultur politika eta eragiletza
Gidaria: Iñigo Astiz

12:30 SOLASALDIA: Anjel Lertxundi eta Olatz Osa.

18:00 MAHAI-INGURUA: Maialen Beloki (Zinemaldia), Dori Lopez Jurio (Nafarroako Gobernua), Xabier Monasterio (Kafe Antzokia) eta Izaro Ieregi (Okela Sormen Lantegia).

10:30 'Gerediaga lagunartean: 50 urteko istorio txikiak' Solasaldia. Elkarteko kideak.

15:30 Irudimena lehiaketaren 5. edizioa. Sari banaketa. Azkue Fundazioa eta EKE.

16:00 'Sutondoko kontuak'. Txerra Rodriguez.

16:30 'Lapur bandaren etikak ala politika: gure politikaren bilakaeraz inpresio eta iritzi batzuk'. Julen Arexolaleiba.

17:00 'Back to Leizarraga'.

ABENDUAK 7, ASTELEHENA

GOGOETAREN PLAZA

Jakin eta Gerediagaren arteko lankidetzarekin.

ERRELEBOA: Belaunaldi arteko zubiak
Gidaria: Sustrai Colina.

12:30 SOLASALDIA: Jose Mari Agirretxe 'Porrotx' eta Itxaro Borda.

18:00 MAHAI-INGURUA: Danele Sarriugarte, Hedoi Etxarte, Miren Amuriza eta Joseba B. Lenoir.

10:30 'Genero trataera egokirako estilo liburua'. Iban Arantzabal (Goiena) eta Arantza Santesteban (egilea).

11:00 'Ametsen liburua'. Fermin Munarriz eta Jokin Urain.

11:30 'El Derecho Humano de la Autodeterminación de Euskadi'. Juan M. Atxutegi.

15:30 'Euskal Hedabideen Urtekaria'. Alberto Barandiaran (Hekimen), Patxi Azpillaga (EHU), Itxaso Fernandez (EHU), Xabier Landabidea (Deustuko Unibertsitatea) eta Eneko Bidegain (HUHEZI)

16:00 '1813 urteko hondamendiaren aurreko Donostia gogoratuz eta 'Donostiako Santa Maria Basilikako kanpandorre atea'. Jose Javier Pi Chevrot eta Veronica Ordozgoiti.

16:30 'Mundutik Euskal Herrira'. Paul Asensio, Iñaki Pujana eta Otxandioko Udaleko ordezkari bat.

17:00 'Identitatea eta anomalia'. Eduardo Apodaka.

ABENDUAK 8, ASTEARTEA

GOGOETAREN PLAZA

Jakin eta Gerediagaren arteko lankidetzarekin.

ALFONBRAK: Euskal kulturaren prestigioa
Gidaria: Gorka Erostarbe

12:30 SOLASALDIA: Ruper Ordorika eta Jon Maya.

18:00 MAHAI-INGURUA: Harkaitz Cano, Aizpea Goenaga eta Asier Mendizabal.

10:30 'Mentir es encender fuego'. Francisco Panera.

11:00 'Egile eskubideak kudeatzeko beste eredurik ba al dago?' Mahai-ingurua. Igor Estankona, Ainara LeGardon eta Anjel Valdes.

11:30 'Lepo-ondo gogor'. Gabi Mouesca.

15:30 'ENA, 18 urtez, adin nagusitasunera heldua'. Urtzi Ihiza.

16:00 'Loraldia'. Imanol Agirre, Pello Urcelay, Mishisa (DJ).

16:30 '2016ko ilargiaren egutegia'. Jakoba Errekondo eta Pello Zabala.

17:00 '1914-1918 Lekukoak'.

AZOKA TB

Emisio jarraitua Azokak irauten duen bitartean, 10:30etik 20:00etara.

Azokaren begiak, belarriak eta ahoa:

Gertatzen ari dena eta etorriko dena erakutsi eta kontatzen du euskarazko tokiko telebistetan eta, nonahi, streaming bidez durangokoazoka.eus webgunean.

Landakoko platotik zuzenean:

Amaia DJ, Azokan Gaur, Landakoenea, Youtuberrak etab.

Jesus Mari Arruabarrena, Asun Elorriaga eta Txelu Angoitia |

“Zenbat eta gehiago ezagutu bere historia, gehiago baloratzen duzu Durangoko Azoka”

Azokaren mende Erdiko historia, bizipenak eta irudiak bildu ditu Gerediaga Elkarteak ‘Durangoko Azoka 1965-2015’ liburuan



Joseba Sarrionandiagaz batera liburuarren egileak izan diren Jesus Mari Arruabarrena eta Txelu Angoitia, eta Asun Elorriaga Gerediaga Elkarteak idazkaria.

> ARGITALPENA Itsaso Esteban Zein izan da lan honen abiapuntua?

Asun Elorriaga: 50. urteurrena betetzera gindoazela, data hori mugarririk dela, eta Azokaren historia batu egin behar genuela ohartzea izan zen abiapuntua. Orain urtebete baino gehiago izan zen hori. Erabaki genuen Azokaren historia idatziko genuela, baina horri testuinguru bat ere eman nahi geniola. Lana pertsona bik egingo zutela ere adostu genuen, eta egileak Durangaldekoak izan behar zirela.

Joseba Sarrionandia, Txelu Angoitia eta Jesus Mari Arruabarrena izan dira egileak.

A. E.: Bai. Azokaren testuinguruari buruz idaztea Joseba Sarrionandia idazleari proposatu genion, eta Azokaren historia-ren partearren ardura hartzea Jesus Mari Arruabarrenari. Koordinazioa Txelu Angoitia egin du, eta berau arduratu da liburuarren alde bisualaz ere.

Zaila izan da hainbeste eskuaren lana koordinatzea?

Txelu Angoitia: Jende asko egon da inguruan, eta nire ardurari handiena izan da zelan lotu parte guzti horiek eta batasuna lortu idazle bik idatzitakoagaz,

eranskinagaz, eta liburuan dau den hainbeste irudigaz. Gauza asko adosteko beharra egon da; izan ere, konpromiso handia hartu dugu liburu honekin, eta denok nahi izan dugu puntu-puntu utzi.

Ohorea izan da data mugarririk horren testigantza izango den liburuarren parte hartzea?

A. E.: Horri lotuta, proposamena egin genionean, Josebak esan zuena aipatu nezake: “Egin behar dudana gogoeta da, eta egin gura dudana”, esan zuen. Gustoz hartu zuen proposamena, izan ere, 50 urte hauen historia era pertsonalean lantzeko beharrezana ere sentitzen zuen.

T. A.: Ilusio handiagaz hartu genuen denok proposamena. Gerediagak aurten hainbat liburu kaleratu dituen arren, denoi iruditu zaigu hau gauza berezia zela. Durangotik haratago zabalduko den lana da.

Zer azpimarratuko zenukete Sarrionandiak idatzitakotik?

A. E.: Berak esana da dena pentsatzen duen bezala idatzi duela. Ez dagoela inolako zentsurarik. Oso interesgarria da Sarrionandiak zer pentsatzen duen jakitea, izan ere, autonomia berezi batez jardun izan da beti.

Sarrirenaz gainera, beste hamar lagunen inpresioak ere jaso dituzue libururako, ezta?

Jesus Mari Arruabarrena: Batez ere, Gerediaga Elkartearen presidente izan direnekin izan ditut solasaldiak; Jose Ignazio Alberdi, Balendin Lasuen, Nerea Mujika edo Anton Mari Aldekoa-Otalaragaz, esaterako. Baita Azokaren zuzendari izan diren hainbat lagunekin ere: Jon Irazabalekin, esaterako. Kargurik bete ez arren, Azokaren historian pisua izan duten beste pertsona batzuekin ere jardun naiz hizketan; Leopoldo Zugaza, Lazaro Milikua, edo Jose Luis Lizundiagaz, kasurako.

Liburuarren zer formatan dago emanda elkarrizketetakoak?

J. M. A.: Kontakizun nahiko kronologikoa egiten dut: sasoika ordenatua. Nerea Mujikarena elkarrizketa formatu ortodoxoan dago jasota, eta besteak testu jarrai moduan daude idatzita.

Zer inpresio jaso duzu jende guzti horregaz egon eta gero?

J. M. A.: Hainbat elkarrizketatuk kontatzen dutenaren arabera, Durangoko Azokaren historia etengabeko borroka bat izan dela, arlo guztietan: Leopoldok kontatzen du, hasiera-hasieran,

liburugintza arloko jendeagaz harremana egiten hasi zenean, esaten ziotela horrek ez zeukala inorentzat interesik. Elkartearen barruan Azoka egitea proposatu zenean ere, hainbatek hori esaten omen zuten. Hurrengo hamarkadetan ere, oso momentu gogorak bizi izan zituzten Azokaren bultzatzaileek: alderdi politikoekin, bateko eta besteko gobernuekin, etab. arazo askori egin behar izan zioten aurre.

Historia horren ostean, lortu da adostasun bat Azokaren garrantziari dagokionari?

J. M. A.: Bai, baina kontuan hartzekoa da 80ko hamarkadatik hona egoera politikoa zein soziala ere asko aldatu direla.

A. E.: Azokak gaur egun aitortza hori badaukala uste dut. Geurea dela sentitzen dugu euskaldun gehienok; hasi erakundeetatik eta edozein herritarrenganaino.

T. A.: Nire ustez, Gerediaga Elkartearen zelanbaiteko kontsentsua egon da, Azoka, zelanbait, alderdikerien jokotik aparte mantentzeko. Eta uste dut oso inportantea izan dela hori.

Aurretik zeneukaten iritzirekin bat aldarazi dizue lan honek?

T. A.: Zenbat eta gehiago ezagutu, gehiago baloratzen duzu

Azoka. Ematen du beti egon dela hor, berez bezala, baina historia ezagututa gehiago baloratzen duzu. Bestalde, ideia txikiak izan dezaketen garrantziak ohartarazi nau lan honek.

J. M. A.: Oso inportantea dela ideia txikiak harkor izatea. Azokaren proiektuagaz oso sinestuta egon dira beti arduradunak, eta aurrera egin dute, baldintza oso zailetan ere.

A. E.: Eboluzioa itzela izan da. Liburu azoka bat egitea eduki zuten hasieran buruan, gero horri diskoak ere gehitzeko beharraz ohartatu ziren, eta gaur egun kulturaren plaza da Durangoko Azoka. Diziplina asko biltzen du Durangoko Azokak.

Zelan ikusten dute elkarrizketetuek 2015eko Azoka?

J. M. A.: Galdera hori ez dut zuzenean formulatu, baina uste dut denek oso modu pozgarrian ikusten dutela. Etorrizunera begira dauzkaten beldur batzuk aipatu dituzte, bestalde, elkarrizketetan: esaterako, Jon Irabazalek azpimarratzen du Azokaren muina Liburu eta Disko Azoka bera dela ezin dela ahaztu; Azoka mimatu beharra dagoela.

T. A.: Lehen bezala, Azoka da guzti honen motorra, editoreak ez badatoz, ez dago ezer...

A. E.: Egungo ereduagaz salto kualitatiboa eman dugu, eta sortzaileengandik zuzenean jasotzen ditugun lanak dira orain: liburu idatzi duenak berak aurkezten digu lana, diskoa sortu duenaren zuzeneko emanaldia entzun dezakegu, filma egin duenarekin berba egin...

Libururako, Azokari buruzko artxiboko argazkien bila ibilira, Txelu. Lan zaila izan da?

T. A.: Zaila izan da lana, bai; izan ere, badaude edizio batzuk argazkirik bakoak. 60ko eta 80ko hamarkadetako edizio batzuetako argazkiak ez ditugu lortu. Baina, Jose Miguel Astiz eta Jose Mari Uriarte, Fotosol, eta *Deia* eta *El Correo*ko artxiboekin, Azokaren ehundik gora argazki bildu ditugu libururako.

Argazkilari bezala lanean jardungo zara aurten ere?

T. A.: Bai, azken 15 urteetan egin dudana bezala, Gerediaga Elkartearentzako argazkiak egiten ibiliko naiz Azokako egunetan.

Gerediagaren sortzaileek jasoko dute Argizaiola 50. Durangoko Azokan

Sortzaile haiek oihartzuna izango zuen kultur ekimen handi bat antolatu gura izan zuten

DURANGO Jone Guenetxea Frankismoaren homogeneotasunetik eta inposiziotik ihesi, Durangaldeko andra-gizon talde batek euskara oinarri zuen proiektu bat bultzatzeari ekin zion duela 50 urte. 1964ko Elkarleen lege berriarekin Asociación Guerediaga de Amigos de la Merindad de Durango izenarekin sortu zuten. *Hamabi Harriren Ahotza* liburuan elkarrekin azaltzen duenez, hasierako estatutuetan eskualdearen azterna historikoak berreskuratzea eta kultur ondarea bultzatzea ziren Guerediaga Elkarlearen sorrerako helburuak.

Elkarlea martxan jarri zuten ekintzaile haiek dira, hain zuzen, aurtan 50 urte beteko dituen Durangoko Azokan Argizaiola omenaldi saria jasoko dutenak. Eskualdeko herrietako hainbat euskaltzalek proiektuarekin bat egin zuten. Esaterako, Gerediagaren lehenengo asanbladan Jose Luis Lizundia (Abadiño), Juan Berriozabalgoitia (Garai), Balendin Lasuen (Zaldibar), Jesús García Ariño (Atxondo), Rafaela Ajuria (Izurtza), Bixente Kapanaga (Iurreta), Concepción eta Rosario Astola, Arrate Salazar, Leopoldo Zugaza, Salvador Solaegui eta Jesus Astigarraga durangarrek batera bildu ziren.

Erregimena zelatan

Elkarlearen jarduera batzuk susmagarriak ziren erregimeneko agintarientzat, eta Gerediagako kideek hainbat oztopori aurre egin behar izan zioten. Hala ere "aliatu" berezi bat izan zuten. TALGO trenaren tabernan, Iñaki Aizpurua Gerediaga-

kideak Manuel Fraga Iribarne sasoi hartako Informazio eta Turismo ministroa aurkitu zuen. Aizpuruak egoera hura baliatu zuen Fragari elkarrekin zituen oztopoak azaltzeko. Horrela, Fraga 1967ko II. Liburu eta Disko Azokara joatera gonbidatu zuen. Francoren erregimeneko ministroaren erantzuna ere jaso zuten. Gutun horretan Gerediagari bide instituzionala errazteko konpromisoa adierazi zion.

Fragak Gerediagari bide instituzionala errazteko konpromisoa adierazi zion gutun baten bidez

Azokak bost hamarkada bete dituela ospatzeko, Argizaiola ekitaldi berezia antolatu dute gaurko

Gerediagaren sortzaileek argi zuten eskualdeko mugetatik kanpo oihartzuna izango zuen ekimena martxan jarri gura zutela. Asmo horretatik sortu zuten orain 50 urte Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka. Andra Mariko elizpean egin zituzten lehenengo azokak, eta ondoren Merkatu Plazara lekualdatu zuten. Han egin ostean, Landakon jarritako karpek hartu zuten azoka. Orain urte batzuk Landako Gunea eraiki eta azokak kokapen finkoa izatea lortu du. Horrekin batera, azken urteetan, azoka liburu eta



Azokaren lehenengo edizioak Andra Mariko elizpean antolatu zituzten.



Landako Gunea eraiki aurretik inguru horretan karpa erraldoiak egokitzen zituzten azoka bertan antolatzen.

diskoen saltoki izateaz gainera, guneen azoka izatera pasatu da. Salmenta postu eta erakusleho izatetik, kulturaz zuzenean gozatu eta hausnartzeko topagune izatera pasa da.

Argizaiola berezia

Azokak bost hamarkada bete dituela ospatzeko, Argizaiola ekitaldi berezia proposatu dute aurtan. Gaur, abenduaren 4an, arratsaldeko 19:00etan, Gerediagaren sortzaileei Argizaiola

saria emateaz gainera, aitortza berezia egingo diete.

Ekitaldian Karrika antzerki taldeak berrogei minutuko antzezpenean Gerediagaren sorrerako lehenengo 10 urteak islatuko ditu; hau da, sorreratik trantsiziora arte (1965-1975). Jose Martin Urrutia *Txotxe* Karrikako zuzendariak azaldu duenez, "saiatuko gara sasoi hartako espiritu hura islatzen. Inmersio psikologiko-historiko bat izango da. Momentu hartan

kasualitateek, ideiek eta inpulsoek Gerediaga zertara eraman zuten azaltzea da asmoa".

Antzezanaren gidua *Txotxe* berak idatzi du. Horretarako Gerediagak bere historiaren inguruan idatzitako liburutik abiatu da. Eneko Sagardoy antzezlaraen laguntza ere izan du. Karakterizaziorako sasoi hartako arropak eskatu dituzte sare sozialen bidez. Azaldu dutenez, jantziak era sinboliko baten erabiltzen saiatuko dira.

Eskutitzak
Izar Produkzioak

Abenduaren 7an
20:00etan

Sanagustinalde, 12
Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

PLATERUENA
Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA
EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

JAZZ
KONTZERTUA
GROOVING LINES

ABENDUAK 18
22:00ean



RENAULT
Passion for life

Bigarren eskuko ibilgailuek espazio zabala behar zuten, eta eman egin diegu.

GAURSA OCASIÓN

ESPAZIO ZABALA

BIGARREN ESKUKO IBILGAILUAK IURRETAN

Kalitate handia eskaintzen dugulako (ehun puntutan baino gehiagotan errebisatutako autoak); 24 hilabeterainoko bermea ematen dugulako; stock handia eta marka guztietako ibilgailu-aukera zabala dugulako; gure prezioak azken prezioak direlako; finantziazio-baldintza ezin hobekak eskaintzen ditugulako... Eta beste hainbat arrazoi tarteko, bigarren eskuko ibilgailu baten bila bazabiltza, zatoz **IURRETAKO GAURSA ZENTRO HANDIRA.**




RENAULT
OCASIÓN

ZER EZ ZENUKE EMANGO HORRELAKO AUTO BATENGATIK

GAURSA

Arriandi, 12. Tel. 94 620 33 00. IURRETA www.gaursa.com

50. DURANGOKO AZOKA



2015eko ABENDUAREN 4tik 8ra

Andoni Urzelai | Idazlea | Aretxabaleta (Gipuzkoa), 1967

“Jendeak gaur egun ez dauka kulturarekiko ezelako kuriositaterik”

‘Karanbola Toxikoak’ eta ‘Demencia’ liburuak kaleratu ditu Andoni Urzelaiak

► **ELKARRIZKETA** M. Onaindia Kultur ereduaren inguruko kezka daukala igartzen zaio Andoni Urzelairi. Hori da ‘Karanbola Toxikoak’ liburuak (Susa) dakarren aldarrietako bat. Baina, sakonean, zalantza existentzial ugariaren kontaketa egiten du: heriotzari eta bakardadeari beldurra edukitzea, adibidez. Durangon eta bertako kultur bizitzan dabil aspalditik.

Liburu hau, “begirada bihurri” lez aurkeztu duzu.

Gaur egun kokatuta dago, eta gertatzen dabilzan hainbat gauzari begirada kritikiko bat egiten dio. Mikel izena daukan mutil bat idazle zapuztua da, eta eskal kulturagaz lotutako hainbat erakunderen kontrako gurutzada baten hasten da. Gaur egun kultura nola kudeatzen den, agintariak zelan kudeatzen duten, herritarrek kulturarekiko duten jarrera... Ustelkeria ere kritikatzeko da liburuan.

Ez da politikoki zuzena, ezta? Ez. Atentatuak egiten hasten da Gerediaga Elkartearen edota Iraleren aurka, eta Topagunea edota Etxepare institutua mehatxatzen ditu. Ez da politikoki zuzena, eta hor esaten diren astakeria asko ez ditut neure egiten. Baina pertsonaia nagusia justifikatzeko modu bat da. Mundu hori seduzitu gura du, baina izkin egiten dio. Idazle baztertu bat da eta mundu horren kontra egiten du. Baina modu nahiko jostarian idatzita dagoela iruditzen zait.

Frustaziotik idatzita dago? Trama nagusi horren inguruan, nire betiko obsesio asko lantzen

dira. Ospea bilatu gura izatea, bakardadeari eta heriotzari beldurra... Hainbat jendeak esan du liburu hau galtzailez betetako dela, baina ni ez nator oso bat. Egia da pertsonaia guztiak muturrera eramanda daudela, baina frustazio horiek, maila baten, denok dauzkagula uste dut. Gabezia existentzial bat daukate pertsonaia guztiak.

Kultur ereduaren inguruan, apatia aipatzen duzu.

Jendeak gaur egun ez dauka kulturarekiko ezelako kuriositaterik. Gizartea bere baitan kiribilduta dagoela iruditzen zait, eta apatia horrek ez dauka ezer onik. Horri agintariak daukaten kultura sustatzeko ereduak batu behar zaio. Tabakalerak, Guggenheimak... hemengo ereduak itzelezko eraikinak daude, aisialdirako eskaintza moduan. Barrutik hutsik daude, baina inork ez daki zelan bete. Ez da sustatzen kultura bere modu naturalean; sortzaileei sortzeko bidea eta lekuak eman, diru-laguntza edo bekak... Okerrena da beharrik ere ez dela ikusten. Zergatik? Agintariak kultura zerbait turistikoa lez ikusten dutelako. Teleberrietan ekaineko

“Gizartea bere baitan kiribilduta dagoela iruditzen zait, eta apatia horrek ez dauka ezer onik”

BBK Livera zein talde datozen iragartzen hasi dira. Ondorioa da 15.000 lagun doazela, eta bes-telako edozein kontzertutara hamabost. Erdibidekoa desager-tzen dabil.

Eztabaidak eta kritikak zabal-tzea beharrezkoa dela uste duzu?


Nik uste badabilela, baina mikromundu baten. Kulturaren, esparru guztietako sortzaile eta kontsumitzaileak berberak dira gutxi gorabehera. Kezka bada-go, baina mundu horretan; ez da kanpora irteten.

Gaur egun, ordea, kultur eskaintza ugaria da, eta bideak ere bai.

Gizarte konplikatua da hau, zarata asko dago. Internet bera da zarata. Inoiz baino informazio gehiago dago, baina ez dakit ez gaituen lurperatzen. Harategi batera sartu, eta aukeran solomo bakarra badaukazu, hura erosi eta listo. Merkataritza-gune batera joan eta 50.000 solomo desber-din ikusiz gero, hor sortzen dira dudak.

Bestalde, aurren, ‘Demencia’ izeneko liburua ere argitaratu duzu, gazteleraz.

Orain dela sei-zazpi urteko liburu da. Tontoka hasi nintzen idazten. Amaitzerakoan, inguruan jaso nuen inpresioa zera zen: jendeak lehen mailan ipintzen du gaztelerazko literatura, eta bigarren mailan euskarazkoa. Esaten zidaten gazteleraz zaila izango zela publikatzea, euskaraz edozeinek publikatzen dizula. Baina ez da egia; zorrotasun berdina dago. Nobela da *Demencia*,



Urzelai, ‘Karanbola Toxikoak’ eskuetan duela.

cia, eta zoro baten bizipenak kontatzen ditu. *Gran Hermano* moduko telebista baten sartzen da, baina bertako pertsonak protagonistaren buruan baino ez dira existitzen. Arazo existentziales gain egindako pertsona

zoro baten inguruko nobela zoro bat da.

Sarri idazten al duzu?

Ez. Noski, nik afizioz idazten dut, ez ofizioz. Denbora daukadan idazten dut, baina oso obsesioa naiz. Adibidez, *Karanbola toxikoak* hiru hiletan idatzita dago. Gainera, denbora gehiago eskainiz gero, errealitateetik irteteko arriskua daukat. Eguneko 24 orduak ematen dizkiot idazteko lanari. Igeri egiteko zaletasuna daukat, eta igerilekura bertara libreta eta boligrafoagaz sartu izan naiz. Uretan bueltaka nabilela, ideia bat otu, busti-busti eginda irten, apuntatu eta berriro uretara.

“Igeri egiteko zaletasuna daukat, eta igerilekura bertara libreta eta boligrafoagaz sartu izan naiz”

DURANGOKO AZOKARAKO MENUAK
abenduaren 5etik 8ra

BABARRUN MENUA 22,50€
Edaria eta BEZ barne

ASTEBURUKO MENUA 28,50€
Edaria eta BEZ barne

betixu
IGOR SOLAGUREN

Iturburu, 9 - IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 817 847

Guke informazio guztia Facebook eta Google+ sare sozialetan aurkituko duzu, Betixu Restauranten kontuetan

hitz #gomendioak

artekalea 14, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

Wagner aukar
Auziaz Hedoi Etxeak (2014)

UME ETA GAZTEENTZAT URPEKARIAK
Fermin Etxegoen (2015)

MUSIKA JP LOHIAN & KLONEN KLANA
JP Lohian (2015)



Azken hiru urtean Durangoko Azokako ikus-entzunezkoen plazatik zabaldu da kalera Kameratoia.



Ikus-entzunezkoak euskaraz sortzen dituzten gazteei bultzada eman gura die.

Begia euskarazko ikus-entzunezkoen sortzaile gazteengan jarrita

Abenduaren 5ean, 11:00etan, abiatuko da Kameratoia Euskal Herriko ikus-entzunezkoen 11. rallya

DURANGO A.B.

Jarri dute hitzordua euskarazko ikus-entzunezkoen gazte sortzaileentzat. Zugaza zineman izango da abenduaren 5ean, 11:00etan. Orduan abiatuko da Kameratoia, 11. aldia duen Euskal Herriko ikus-entzunezkoen rallya. Orduan azalduko zaie izena eman duten 20 taldeei lanen gaia eta ezaugarriak zeintzuk diren. Guztira, 65 pertsona inguruk parte hartuko dute Kameratoian —gipuzkoarrak 29, bizkaitarrak 24, arabarrak 9 eta nafarra bat; Euskal Herriko kanpokoak dira bi lagun—.

Abenduaren 5etik 8ra, Kameratoiak Irudieneatik, Durangoko Azokako ikus-entzunezkoen plazatik, kalera zabalduko du parte hartzaileen ekoizpen artistikoa. Nobedadeak ere badaude aurten. 50. urteurrena duen Durangoko Azokari keinu eginez, oraingo honetan, 50 ordu izango dituzte gazteek labormetriak sortzeko; 48 ordu izan dituzte aurreko aldietan. Hartara, sor-

taile gazteek abenduaren 7ko 14:00ak baino lehen aurkeztu beharko dituzte euren ekoizpenak. Sari banaketa gala, abenduaren 8an izango da, 18:00etan, Zugaza zineman.

50.a duen Durangoko Azokari keinu eginez, 50 ordu izango dituzte labormetriak sortzeko

Sortzaile gazteek abenduaren 7ko 14:00ak baino lehen aurkeztu behar dituzte ekoizpenak

Tokikomek emandako saria Saridunen artean 3.600 euro banatuko ditu Topaguneak: 1.200 euroko saria lortuko du irabazleak; bigarrenak, 900 eurokoa, eta, hirugarrenak, 600

eurokoa. Azkenengo sari hori Tokikomek, tokiko hedabideen elkarteak, emango du, aurten lehenengoz. Sortutako lan guztiak asteartean Zugazan egingo den galan proiektatuko dituzte, eta, bertan azalduko da baita irabazleak zeintzuk diren ere, Leire Lardizabal Topaguneko ordezkariak azaldu duenez.

Talde saridunaren lanak zabalduko berezia izango du Tokikom osatzen duten euskarazko tokiko hedabideen artean, baita Laburbira film laburren zirkuituan ere.

“Publikoari esker ona”

Publikoaren saria ere emango dute 11. Kameratoi honetan. “Publikoari iritzia emateko aukera eman gura izan diogu, eta bide batez, esker ona adierazi ere bai”, nabarmendu gura izan du Lardizabalek. Publikoaren saria lortzen duenak ez du diru-saririk izango.

Ikus-entzunezkoak euskaraz sortzen dituzten gazteei bultzada


emateko sortu zen Euskal Herriko ikus-entzunezkoen rallya. Baita Topaguneak antolatutako Benito Ansola Saria eta Laburbira zirkuitoa ere. Martxoan izango den 2016ko Laburbirara-

Sortutako lan guztiak, abenduaren 8an, Zugaza zineman egingo den ekitaldian aurkeztuko dira

Ikus-entzunezkoak euskaraz sortzen dituzten gazteei bultzada emateko sortu zen Kameratoia

ko lanen aukeraketarako lanak bidaltzeko aukera dago jada, eta, “sortzaile ezagun eta hasiberriren arteko oreka mantentzea” izango dute helburu, antolatzaileen hitzetan.

KAMERATOIA 2014 SARITUAK



‘Klak’. Lehenengo saria.



‘Hats emanetz’. Bigarren saria.



‘EHTxapak’. Hirugarren saria.



‘Zoroetxea’. Topagunea Saria.

MATERIAL DE CONSTRUCCIÓN
MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

DIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

“Komunikazioa eta publizitatea enpresa handi zein txikiarentzat dira eskuragarriak”

Diseimedia agentzia handien kontzeptua hautsi du, komunikazioa enpresa mota guztientzat eskuragarri egiteko

Bego Goitiak eta Irune Mateok Durangoko Diseimedia komunikazio enpresa osatzen dute. Gaur egun enpresa handi zein txikiak komunikazioa lantzeko duten premiei erantzutea da enpresa horren helburua. Bezeroen beharretara egokitzeko gaitasuna da Diseimedia-ren gako.

Zer da Diseimedia?

Diseimedian komunikazioa eta publizitate zerbitzuak eskaintzen ditugu. Sormena eta komunikazioa bateratzen ditugu bezeroek euren helburuak lortu ditzaten: gehiago saltzea, irudia hobetzea, produktu bat ezagutzera ematea, etab. Euren beharrik identifikatzen ditugu, eta konponbidea eskaintzen diegu.

Zein zerbitzu eskaintzen dituzue?

Lau esparru nagusi lantzen ditugu: aholkularitza eta estrategia –gure lana burutzeko funtsezkoa–; diseinu grafikoa –logotipoak, kartelak, katalogoak, etab.–; argazkiak eta bideoak; eta, azkenik, online marketing-a, hau da, web orrialdeen eraikuntza eta diseinua, sare sozialak, interneteko kanpainak, etab.

Komunikatzeko euskarri guztiak eskaintzen dituzuela esan daiteke?

Bai. Zerbitzu integralak eskaintzearen helburuak bi dira. Alde batetik, bezeroarentzako komunikazio eraginkorrago bat lortu nahi dugu. Komunikazioaren euskarri guztiak hornitzaile berarekin kudeatzerakoan, horiek estrategia beraren eraginpean burutzen dira, eta, ondorioz, komunikazio kanpaina eraginkorrago bat egitea lortzen dugu. Beste aldetik, bezeroari erosotasuna eta erraztasuna eman nahi dizkiogu. Izan ere, bezeroak

zerbitzu guztiak hornitzaile berarekin kudeatzerakoan, denbora eta dirua aurrezten du.

Kolaboratzaileak dituzue?

Bai, asko. Gure ibilbide profesionalean ezagututako hainbat *freelance*ekin, profesionalekin eta beste hainbat enprekin kolaboratzen dugu. 3D diseinua, programazioa, mugikorretarako aplikazioak... bezeroari balorea eskaintzen dion guztia lantzeko. Kolaboratzaileei esker, bezeroei proiektu konpetitiboak, eraginkorragoak eta bereziak eskaini ahal dizkiegu.

Komunikazioa enpresa handiek bakarrik egin dezakete la uste dute askok. Enpresa txikiak ere badiharduzue?

Beti pentsatu izan da publizitate zerbitzuak garestiak direla eta, beraz, enpresa handien eskura baino ez daudela. Diseimedia orain arte gizartean egon den agentziaren kontzeptu horrekin apurtu du. Diseimedian ikusi genuen beste agentzia eredu bat

“**Poltsikoetara egokitzeko gure gaitasunari esker bezeroak bikoiztu ditugu**”

“**Bulego berria zabaldu dugu Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean**”

eskaintzearen beharra zegoela, non egitura txikiago batek kalitate bera eskaini zezakeen, baina prezio baxuagoen truke. Gure filosofia argia da: komunikazioa eta publizitatea enpresa mota guztientzako eskuragarri egitea. Hau lortu daiteke koste estrukturalak kontrolatuz, baliabide aproposenak aukeratuz eta sormena eta estrategia lan-

duz. Beraz, komunikazioa ez da zertan enpresa handiei mugatuta egon behar. Txikiak handien profesionaltasunagaz komunikatu dezakete.

Zerk bereizten zaituzte beste agentzia batzuetatik?

Aurretik aipatu dugun moduan, enpresa handiekin zein enpresa txikiarekin moldatzeko gaitasuna dugu, profesionaltasun eta kalitate berarekin eta bezeroaren poltsikoetara egokituta. Horretaz gain, gertutasuna eta arreta pertsonalizatua eskaintzen dugu, eta hori bezeroek asko baloratzen du.

Zein da bezeroek gehien eskaintzen duten zerbitzua?

Oso profil anitzeko bezeroak ditugunez, denetarik eskatzen digute. Baina azkenean boladan produktuen bideoak eta enpresako spotek eskaera handia dute, batez ere sektore industrialean. Sektore horretan orain arte ez dute bideo edo argazkiaren kulturarik izan. Ikusentzu-

nezkoen inguruko teknologia asko aldatu da, eta baliabide merke batzuekin eta sormenarekin, produktu oso harrigarriak egin daitezke.

Krisia nabaritu duzue?

Zorionez, ez. Lana etengabe izan dugu, batez ere bezeroen poltsikoetara egokitzeko moduak bilatu ditugulako. Lan horri guztiari esker, aurten bezeroak eta fakturazioa bikoiztu ditugu eta bulego berria zabaldu dugu Arrasaten, Garaia Berrikuntza gunean, hain zuzen. Epe labur baten lanpostu berriak sortzea ere espero dugu.

Zeintzuk dira etorkizunerako dituzuen erronkak?

Beste agentzia guztietatik bereizten gaituzten ezaugarri horiek guztiak lantzen jarraitzea eta indartzea nahi dugu, enpresa handitza eta sendotzea, eta inguruko enpresentzako komunikazioaren eta publizitatearen arloan erreferente izatea.



Idea onenak soilik iristen dira...

Diseimedia Komunikazio eta Publizitate Agentzia
Marketing - Komunikazioa - Diseinua - Argazkigintza - Bideoa - Internet
Durango eta Arrasaten gaude! www.diseimedia.com

Eider Eibar | ‘Barrukoa’ marrazki liburua argitaratu du | Zornotza, 1980

“Atzera begiratu eta nahi nuena gordinean kontatu dut liburuan”

‘Barrukoa’ izeneko marrazki liburua argitaratu du EDO! argitaletxeagaz

> MARRAZKIGINTZA J.D.

Eider Eibarrek bidaia bat proposatzen du ‘Barrukoa’ marrazki liburuan. Bidaian zehar neskato bat emakume bihurtuko da, eta bidean bizitzako esperientziak, ikasgaiak eta eskarmentuak jasoko ditu. Barneko bidaia hori kanpoko baten bidez islatzen du Eibarrek. Neskatoak gorputz barneko organoetatik egiten du bidaia, goitik beherantz: burutik begietara, handik biriketara... Organo bakoitza bizitzako esperientzia jakin bati lotuta dago.

Zelan sortu zaizu zure proiektu propioa lantzeko aukera?

EDO! argitaletxetik Mikel Ayerbe etorri zitzaidan proposamenarekin. Orain sei-zazpi urte ezagutu ginenean ere galdetu zidan ea nire lan propioa noizko. Artean ez nuen beharrian hori sentitzen; orain, aldiz, baietz erabaki dut, badudalako zer kontatua.

Besteen ideiak ilustratzetik, ideiak norberak sortzera alde handia dago. Pausua ematea kostatzen da?

Bai. Azken baten lan bikoitza da. Idazle batek testua ematen dizunean, lan erdia eginda dago. Abiapuntua badago. Orain, ehuneko ehuna nire esku egon da: istorioa zein marrazkia. Batetik besterako pausu hori ematea

kostatzen da. Liburu hau egin ostean gehiago baloratzen dut norbaitek bere istorioak ilustratzeko eskaintak aukera, horrek duen balioagatik. Ez lanaren zati bat eginda dagoelako, baizik bere mundua ilustratzeko aukera eskaintzen dizulako; hori ohore bat da.

Zein da liburua hari narraitibo?

Prozesu luzea izan da eta hainbat zirriborro fase egon dira. Ez da enbor baten inguruan eraikitako adar multzoa. Adar edo irudi solte batzuk egon dira, euren artean loturarik ez zutenak. Aspalditik neukan ideia horiek kontatzeko gogoia, eta memoria ariketa bat egin dut. Irudiak elkarrekin lotu eta berri batzuk sortu ditut. Lau-bost irudirik sortu dute gainerako guztia.

Zerk lotzen ditu irudiak?

Norbere barrura egindako bidaia da. Norbere gorputz barruan, organorik organora eta goitik behera egiten den bidaia dago ideia denak lotzen. Bidean, protagonista neskato izatetik emakume izatera pasatzen da. Bizitzari lotutako bidaia bat dago eta nahiko autobiografikoa da.

Beraz, bidaia mota bi daude. Gorputzean zeharrekoak bizitzarena islatzen du.

Liburuan zati bi daude: neskatoren kanpoko mundua eta gorputz barnekoa. Barrukoa organo batetik bestera —bihotza, birrikak, begiak...— doa. Irudi bakoitza organo bati lotuta. Horrela, irudi edo eszena bakoitzak bere istorio propioa du: organoa agertzen da, pertsonaia agertzen da, nire iraganera egindako bidaiko oroitzapenak agertzen dira... Ekintza bat dago irudi bakoitzean.

Zuk esana da: “Min asko ematen didaten sentimendu batzuk irudikatu ditut, frustazioa sortu izan didatenak”.

Bai, beti esaten dute nire irudiei buruz borobilak eta goxoak direla. Lan honi buruz ere antzeko gauzak esan dizkirate, baina baita, edukiari erreparatu gero, ez dela horrelakoa ere; barruan dagoena gogorra dela. Egia esan, asmo horrekin egin ditut. Niri min ematen didaten eszena batzuk ere marraztu ditut. Katarsi moduko bat izan da. Atzera begiratu, eta gordinean kontatu dut gogoia izan dudana. Autozentsuratu gabe.

Barrua husteko modu bat izan da? Lortu duzu?


Hasieran uste nuen hutsik geratuko nintzela, baina indarra hartzeko modu bat izan da. Bota beharrekoa bota dut, eta sortu-



tako irudiak etorriko diren beste batzuen hazia direla sentitzen dut oraintxe bertan. Eta banabil irudi batzuk lantzen. Atera beharrekoa atera dut, hustu naiz, baina nire burua ikusteko balio izan dit, eta aurrera jarraitzeko indarra ere eman dit.

Durangoko Artekalen kokatuta dagoen Artekan ‘Barrutik kanpora’ erakusketa duzu liburuko hainbat irudirekin.

Gasteizen liburua aurkeztu baino lehenago erakusketa egin genuen. Jendeak irudiak soltean ikustea nahi nuen. Hango zati bat da Artekara —Durangoko Artekale kalean— ekarri duguna. Liburuan aurkitu daitezkeen zortzi irudi originalek osatzen dute erakusketa. Liburua ere bertan dago salgai. Durangoko Azokan aurkezpena izango dut: abenduaren 5ean, 11.00etan izango da, Ahotsenean.



Miren Uribelarra eta Pako Aristi, liburua aurkezpen egunean.

Miren Uribelarrearen marrazkiek jantzi dute Pako Aristiren liburua

‘Armiarma txiki baten epopeia handia’ liburuko ilustrazioak egin ditu

> MARRAZKIGINTZA J.D.

Erein argitaletxeak ume eta gaztetxoentzako lau liburu berri argitaratu ditu. Horietako bat Pako Aristi idazlearena da, eta ilustrazioak Miren Uribelarrearen (1992, Durango) egin dizkio.

Sei bat urte dira Uribelarrearen eta Aristik elkar ezagutzen dutela. Durangoko eta Iurretako udalek antolatutako idazketa tailer baten izan zen. Orduan, idazleak idazten jarraitzera animatu zuen ikaslea. Ondoren, Uribelarrearen marrazkiak ezagutu zituen Aristik, eta “egunen baten nire libururen bat ilustratuko duzu” iragarri ziola gogoratzen du Uribelarrearen. Ur-

te batzuen buruan iragarpenerrealitate bihurtu da: “Kristoren ilusioa egin dit”, onartu du Arte Ederrak ikasketak burutu eta graduondokoa egiten ari den durangar gazteak.

Aristik etorkinen gaia landu du *Armiarma txiki baten epopeia handian*. Orain urte batzuk Melillako hesian, ez atzera ez aurrera, zintzilik zeuden etorkinen irudia ikusi zuen telebistan. Irudi hori iltzatuta geratu zitzaion. Pertsonak armiarmak ziruditen, eta adierazi gura zuena adierazteko armiarmaren metafora erabili du. Uribelarrearen hamar bat marrazkiak jantzen dute liburua. Marrazkiak non eta no-

la jarri Uribelarrearen berak erabaki du: “Emozionalki gehien eragiten zidaten uneak hautatu ditut marrazkiak egiteko”.

Testuak beltz kolorea azpimarratzen du; beltzak izaten dira albisteak, beltza armiarma... Irakurritakoak barruan sortzen zizkion sentipenak gidatu dute Uribelarrearen eskumuturra marrazkiak sortzerakoan. “Koloreen kontrastea” erabili du. Armiarma protagonista urdin iluna da, eta berde iluna eta marroia lako koloreak ere erabili ditu: “Ilustrazioak koloretsuak eta indartsuak dira. Tristezia gailentzen den uneetan kolore apalagoak erabili ditut”.



Arroitabeiti baserria, San Migel auzoa, 2 GARAI

Tel.: 946 228 240

www.aboiz.es



• **Azoka Menua abenduaren 5etik 8ra** •

Errege eguneko Menua · Arroitabeiti Menua, astelehenetik barikura · Hitzartutako menuak enpresentzat



Euskaraz amets egin,
ikasi, idatzi, lan egin, maite-
mindu, jolastu, gozatu,
sentitu...
**zu zeu izan Kutxabanken
ere, bizi euskaraz.**

Aukeratu euskara kutxabaneko harremanetarako.
Galdetu zure bulegoan.



Mikel Onandia | Arte historialaria | Durango, 1983

“Lana bildu, eta ziklo bat itxi gura dut liburu honegaz”

Durungaldeko Argitalpenak mahaian eskuratu daiteke ‘Arte kritika eta flamingoak zeru berdean’

> ARTEA Itsaso Esteban
Gustora liburuagaz?

Pantailan ikustetik liburu eskuartean eduki arte, beti izaten da beldurra zelan geratuko ote den, baina, orokorrean gustora nago emaitzagaz, bai.

Azken urteetan argitaratu dituzun arte kritiken bilduma da liburukoa, ezta?

Bai, ehun arte erakusketari buruzko testuak bildu ditut, *Berria* egunkarian eta *Deiako* Ortzadar gehigarrian, 2009 eta 2015 urteen artean argitaratutakoak.

Zelan egin duzu aukeraketa?

150 arte kritikatik gora ditut argitaratuta, baina liburuak zifra borobila gura genuen, eta ehun aukeratu ditut. Hautaketarako irizpide nagusia ahalik eta lagin anitzena ematea izan da; ahalik eta areto, museo eta galeria diferenteenetako erakusketek buruzko testuak egitea. Bestalde, erakusketaren garrantzia eta testuaren balioa ere hartu ditut kontuan.

Urte hauetako zure ibilerak islatzen ditu liburuak.

Bai, batez ere Bizkaiko eta Arabako erakusketak dira, eta Gipuzkoako batzuk ere agertzen dira. *Berriako* hamabosteroko arte kritiken lana utzi egin dut, eta eginda neukan lana bildu, eta ziklo bat itxia gura izan dut liburuagaz; bestela ahazturan geratuko litzatekeen hori jasotzea.

Irakokitzailea da izenburua...

Inoiz ez da erraza liburu bati izenburua ipintzea, baina saiatu gara bilatzen zer edo zer irakurlea galdegitera daramana. Kritikatzeta, analizatzea eta baloratzea da arte kritika egitea, eta hori islatzen du izenburuaren lehenengo parteak. Bigarren parteak, *flamingoak zeru berdean*, barruko testu baten izenburua da, eta artelanaren aurrean daukazu esperientzia estetiko, emozional, poetiko eta irrazionalaz dihardu. Izenburuan arte kritikaren bi arlo horiei egiten zaie erreferentzia; irrazionalak diren sentsazio horiei azalpen diskurtsibo-intelektual bat ematen saiatzeari.

Analisirako denbora hartzea eskatzen du kritika bat idazteak. Izaten al duzue?

Eskatzen du bai. Ez da komeni arte kritika egun batetik bestera idaztea; patxada apur bat eskatzen du. Hala eta guztiz ere, egunkarietarako jardunda, ez dugu asti askorik izaten. Erakusketa ikustera joan, horretaz pentsatu, eta idazteko hiru-lau eguneko tartea izaten dugu.

Zein izaten da zure idazlanen abiapuntua?

Izan daiteke erakusketa batek utzi dizun sentsazio bat, eragin dizun gogoeta bat... Horretan oinarrituta, publiko orokor bati zuzenduriko testu bat sortzea da arte kritikariaren erronka; beti ere, errespetua eta zuhurtzia oinarri hartuta.

Liburuko lehenengo testua desberdina da besteekiko.

Bai, kritika bat bezala sortu nuen, baina heterodoxoagoa da; jostalariagoa, libreagoa. Durango Museo koadro bat du abiapuntu, gustuko dudari Mari Puri Herreroen koadro bat. Kritikaren izaerari buruzko gogoeta txiki bat egiten dut testu horretan, apur bat ironikoa.

Hainbat arte diziplina agertzen dira liburuan, ezta?

Bai, badaude oso garaikideak direnak, eta baita klasikoagoak diren gauza formalagoak ere. Bakoitzak testu mota bat eskatzen du. Edozelan ere, osagai finko batzuk daude: informazioa beti eman behar duzu —analisisa eta deskribapena egin— eta baita

“*Atzera begiratu eta diagnostiko txiki bat egiteko aukera ematen du lan honek*”



Mikromezenasgoaren bidez finantzatu dute, parte baten, liburuaren argitalpena.

zure balorazioa ere. Hori guztia lau mila karaktereko testu baten sartzea ez da erraza izaten: beti dago sintesia egin beharra.

Durungaldeko zer erakusketari buruzko testuak daude?

Liburuaren hasierakoaz aparte, Durango Museo beste erakusketa pare bati buruzkoak ere badaude. Angoitia, Arruabarrena eta Lazkano argazkilariek Elorrion ipini zuten erakusketari buruzko testu bat ere badago. Arte Guggenheim Museoa baino askoz gehiago dela erakusten saiatu gara liburuan.

EAEko artearen azken sei urteetako panorama orokorraren ikuspegia jaso dezake baita, liburu irakurtzen duenak.

Atzera begiratu eta diagnostiko txiki bat egiteko aukera ematen du lan honek, bai. Haizea Barcenila irakasle eta komisarioak idatzirik hitzaurreak ere laguntzen du, bestalde, begirada orokor hori ematen. Azken urteetan artearen munduan egon diren tendentziei buruzko hausnarke-ta egin du Haizeak.

Zer zentzutan izan da aberasgarria sei urteetako lana?

Asko ikasi dut: erakusketa asko ikusi dut. Arteaz ikasteko, ikusi eta irakurri egin beharra dago, eta lan honek horretara bultzatu nau. Ikasi dut artea gehiago baloratzen; *a priori* gustuko ez dudanetik ere

zerbait ateratzen. Gozatuz ikasi dut gainera, nire interesekoa delako mundu hau.

Finantzaketa kolektiboari esker argitaratu duzu lana.

Gasteizko Artiumen eta Bilboko Arte Ederren Museoaren lagun-

tzagaz eta mikromezenasgoaren bidez finantzatu dugu. Jendeak dirua aurreratzen zuen, eta liburu eskuratu du argitaratu bezain laster, horrela, publiko bat segurtatu dugu. Edozela ere, tirada txikia egin dugu. Hori bai, ahal den duinena.

San Nikolas Eguna
V. IZURTZAKO
GaztARDOgi
FERIXA
ABENDUAK 6
Igandea, 11:00-15:00
2015

IZURTZA
LASUEN
AVIA
URTE, S.A.

bbk

Abenduaren 8ko herri lasterketak Joseba Jaka gogoratuko du

Askotariko adin tarteko korrikalariei bideratutako hainbat zirkuitu izango dira



lazko irabazleen podiuma: emakumeen seniorretan Aiora Jakak irabazi zuen, eta gizonen senior mailan Yera Varelak.

> HERRI LASTERKETA J.D.
Joseba Jaka (1948-1996, Zarautz) euskal kulturaren eragile garrantzitsua izan zen, eta Durangoko Azokako egunetan urtero gogoratzen dute herri lasterketa baten bidez. Aurten abenduaren

8an, domekan, egingo dute lasterketa, eta Durango Kirol Taldeak antolatuko du. Probak 13. aldia egingo du. *Berria* egunkariari erreleboa hartu zionetik, DKTK antolatzen duen hirugarren edizioa izango da.

Lasterketa denak Ezkurdin hasiko dira eta parte hartzea ahalik eta zabalena izan dadin hainbat zirkuitu antolatu dituzte, adin tarteka bakoitzari egokituta. Gaztetxoek, 2008an edo harrezkero jaiotakoak, 500

metroko ibilbidean ibiliko dira korrika. Ezkurdi plazari itzuli bat emango diote kanpoaldetik 10:30ean hasiko den lasterketan. Ondoren, 10:45ean, 2006-07 urteen artean jaiotako txanda izango da; hauek aurrekoen ibilbide eta distantzia bera egingo dute. Adinean aurrera egin ahal zirkuitua luzeagoa izango da. 2004-05 urteen artean jaiotakoek

Nagusien lasterketarako www.kirolprobak.com-en egin daiteke izen-ematea abenduaren 5era arte

itzuli bat emango diote 800 metro dituen zirkuitu ertainari, eta 2001-03 urteen artekoek, berriz, itzuli bi osatu beharko dituzte.

Gaztetxoek mailetako lasterketen ostean, nagusia hasiko da, 11:45ean. Hauentzat sei kilometroko ibilbidea diseinatu dute. Durangoko kaleetan ez ezik, Iurretako Orozketa auzotik ere ibiliko dira parte-hartzaileak. Lasterketa horretan ere hainbat sailkapen egongo dira adinaren arabera.

Nagusientzako lasterketan parte hartu ahal izateko izen-ematea modu bitara egin daiteke: www.kirolprobak.com web-

gunean abenduaren 5era arte, edo, egunean bertan, lasterketa hasi baino ordubete lehenagora arte. Gaztetxoak ikastetxeetan edo egunean bertan apuntatu daitezke, proba bakoitza hasi baino ordu erdi lehenagora arte.

Zozketak eta opariak

Lasterketa nagusiko parte hartzaileek kamiseta bat eta Cafés Baquék emandako opari bat jasoko dute.

Horrez gainera, goizean zehar Dendak Bai elkarteak emandako erosketa bonoak zozketatuko dituzte Ezkurdin. Helmugan parte-hartzaileen eskura egongo den janaria eta edaria Abadiñoeko Eroskiren bitartez jaso dute.

ORDUTEGIA-ABENDUAK 8

10:30: 2008an edo harrezkero jaiotakoak.

10:45: 2006-07 urteen artean jaiotakoak.

11:00: 2004-05 urteen artean jaiotakoak.

11:15: 2001-03 urteen artean jaiotakoak.

11:45: Nagusien lasterketa.

eme

Elorriko udala


EUSKO JAURLARITZA
EKONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHIAKORTASUN SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

**ELORRIOKO
DENDAK ERAKUSGAI**

**Abenduak, 6 ELORRION.
10:00-15:00 PLAZAKO
17:00-20:00 FRONTOIAN**

**Odoloste pintxoak dastatzeko aukera
EMEko dendetan erosten baduzu**



DS AUTOMOBILES

SPIRIT OF
AVANT-GARDE

UTZI INSPIRAZIOAK
EROAN ZAITZAN.

DS 4 Berria



DS 4 Berrian ihes egitea orekara bidaia egitea da, edertasunera, diseinura.
Potentziaren eta dotoreziaren uztarketa perfektua deskubritzea da,
eta detaile txikiez gozaten ikastea. Zure desioetan inspiratutako
DS 4 Berrian gidatzeko benetako plazerera egingo duzu ihes.
Ezagutu ezazu www.driveDS.es-en.

DS-k TOTAL du gurago

www.driveDS.es

BATAZBESTEKO KONTSUMOA (L/100KM): 3,7TIK 5,9RA. GAS ISURIAK (G/KM): 97TIK 138RA

ZAER MOTOR, S.A.

Padureta industrialdea, 1 · 48215 Iurreta (Bizkaia) · Tfno zkia: 94 620 02 82



JATETXE GIDA

ÑAM!



LAPIKO

Frantzisko Ibarra, 3 DURANGO

Tel.: 946 218 122

Etxeko pizzak. Eguneko menua, karta berria. Etxera eramateko zerbitzua.
www.lapikodurango.com

ÑAM!



PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ

Tel.: 946 826 246

Eguneko menua. Karta. Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.

ÑAM!



IKUSPEGI

Goiuria, 12 IURRETA

Tel.: 946 811 082

Sukaldaritza tradizionala autore sukaldaritza ukituarekin. Durangaldeko ikuspegi ederrak.
www.ikuspegi.com

ÑAM!



MENU BEREZIA

Sarrerakoak (bi aukeran)
Entsalada
Patata frijituak
Zatitutako txuleta errea
Postrea
Ogia eta edaria

60€
bikoteko
(BEZa barne)



JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ

Tel.: 946 824 077

Karta. Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.

ÑAM!



PLATERUENA Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4 DURANGO

Tel.: 946 030 300

Egunero zabalik. Menu bereziak, egunekoak, taldeentzakoak eta ospakizunak.



Profesional onenak zure zerbitzura!

Ekaitz Garate Mujika | Kultur teknikaria | Ordizia, 1977

“Bartzelonan topikoak hautsi gura izan ditugu”

Bartzelonako Euskal Etxeko kideek, diasporako ordezkari moduan, beraien jardunaren berri emango dute Durangoko Azokan egokituko duten standean

> BARTZELONA J. G.

Diasporako kide moduan Bartzelonako Euskal Etxea gonbidatu dute lehenengo aldiz Durangoko Azokara. Ekaitz Garate Mujika (Ordizia, 1977) kultur teknikaria euskal etxe horretako standean izango da, martxan dituzten proiektuak azaltzeko.

Azokara gonbidatu zaituztete. Zer antolatuko duzue?

Kontutan izanda salmentarako guk ez dugula ezer, pentsatu genuen azaldu genezakeela guk zer lan egiten dugun Euskal Etxean. Plataforma eta erakusleio izatea da asmoa. Aldi berean, Bartzelonan zer edo zer sortzen bada, gurekin kontatu dezaketela azaldu gura dugu. Hitzaldi edo aurkezpen bat egitea gura duenak espazioa topatu dezake Euskal Etxean. Era berean, eskuragarri ipiniko ditugu gure kartelak eta egitaraua.

Irudia asko lantzen duzue.

Bai, Bartzelonan nabarmentzea zaila da; beraz, gure mezuek eta irudiek bat egitea gura izaten dugu. Horretarako Igotz Ziarretaren lana oso garrantzitsua da guretzat. Topikoak hautsi gura izaten ditugu.

Zelan egiten da hori?

Harri-jasotzaileak, txapela eta trikitixa topikoak izan daitezke. Guk harri-jasotzailea, txapela eta trikitixa erabiltzen ditugu harrotasunez, baina saiatzen gara, esaterako, baserritar bat DJ lanetan jartzen. Irudi hori ere landuko dugu azokan. Gure irudia oso anitza dela ezagutzera eman gura dugu.

Noiz etorri zara azkenengoz Durangoko Azokara?

Bartzelonan bizi naizenetik ez naiz joan. Euskal Etxean sarritan esan dugu lan kontuengatik joan beharko genukeela, programazioa lotzeko asko begiratzen dugulako zer mugitzen den. Lan-kideren bat beti joaten da, baina ni ez naiz joan, beraz, pozgarria izango da bueltatzea.

Ordiziar batek zelan amaitu du Bartzelonan?

Bartzelonara 2002an etorri nintzen, baina Euskal Etxean 2007an hasi nintzen.

“*Erreferente ugari ditugu; kafe antzokiak, Astra eta Bonberenea, esaterako*”

“*Bartzelonan zer edo zer antolatzen bada, gurekin kontatu dezaketela azaldu gura dugu*”

“*Bartzelonan bizi naizenetik ez naiz azokara joan; pozgarria izango da*”

Zelan hasi zinen Euskal Etxean lanean?

Bi urtez Lizarrako AEKn egon nintzen lanean. Bartzelonara bueltatzean, Euskal Etxeak irakasle eta kultur teknikari izango zen pertsona bat behar zuen. Beraz, hementxe hasi nintzen lanean.

Sasoi hartan Bartzelonako Euskal Etxeak dinamika berria jarri zuen martxan.

2006-2007an norabide berria hartu zuen. Orain garena bihurtzeko asmoa sasoi hartan hasi zen sendotzen.

Bartzelonako Euskal Etxeak zertan dihardu?

Erreferente ugari ditugu. Euskal Herrira begira, kafe antzokiak edo Astra eta Bonberenea, esate baterako, bakoitzak bere izaera propioa duen arren. Euskal Herria Sona amaitu dugu aurreko asteburuan Anarirekin, eta otsaileko zinemaldia prestatzen hasi gara. Zinemaldiko kartela azokan aurkeztuko dugu. Zikloen bitartez kultur disziplina ugari lantzea da asmoa. Momentu hontan urte osoko programa nahiko finkatua dugu. Literaturari, zinemari eta musikari

eskainitako jaialdiak ditugu. Era berean, urte osoan saiatzen gara bestelako disziplinei lekua egiten. Mendia, memoria historikoa, gastronomia...

Katalunia une berezia bizitzen ari da.

Batzuk ados egongo dira eta beste batzuk ez, baina ikusten da gehiengo zabal bat erabakitzeke eskubidearen alde dagoela, independentista izan ala ez. Mugimenduan dagoen herri bat dela ikusten da. Gainera, euskaldunak izanda, arreta bereziz bizi dugu gertatzen ari den guztia.



Ekaitz Garate Bartzelonako Euskal Etxeko kultur teknikaria da. Igotz Ziarreta

HERRIKO DENDAK HERRIKO JENDEARENAK

Iratxeren
altzari-denda

Josebaren
gimnasioa

Aitorren
okindegia

Elsaren
fruta-denda

Lauraren
zapata-denda

Herriko dendak herriko jendearenak dira; jende langilea, lana sortu eta gure kaleak bizirik mantentzen dituena.

HERRIKO DENEK ZURE LAGUNTZA BEHAR DUTE, EZ HUTS EGIN

EUSKO JAURLARITZA

ERAKARBAKIN GARAPEN ETA LEHAKORTASUN SAIA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

AHOTSENEAKO EGITARAUA

ABENDUAK 4, BARIKUA

ZUZENEKOAK

- 11:00** Izate Fallsua. 'Zaratak agindu dezan!' diskoa aurkezten.
- 11:40** Kasernarat. 'Okerreko bidetik' diskoa aurkezten.
- 12:20** Lou Topet. 'Abesti bat gutxiago' diskoa aurkezten.
- 13:00** Biluzik. Kontzertua diskoa aurkezten.
- 13:40** Elortegi anayak. 'Sotoan' diskoa aurkezten.
- 14:20** Pornox. 'Plast' diskoa aurkezten.
- 15:00** ZZIO. 'Bideak' diskoa aurkezten.
- 15:40** Konbenio del metal. 'Arbeit macht frei' diskoa aurkezten.
- 16:20** Gabezia. 'Orain' diskoa aurkezten.
- 17:00** Xoriñoak kaiolan. 'Xoriñoak kaiolan' diskoa aurkezten.
- 17:40** Hira. 'V' diskoa aurkezten.
- 18:20** Txapelpunk. 'Punkaren semeak' diskoa aurkezten.
- 19:00** Noizean behin. 'Oinutsik' diskoa aurkezten.
- 19:40** Piztiak. 'u' diskoa aurkezten.

SOLASALDIAK

- 10:30** Ikasle Eguneko aurkezpena.
- 11:00** Josu Bergara. 'Kanta txikien indarra' diskoaren aurkezpena ikasleentzat.
- 11:30** Patxi Zubizarreta. '1984ko uda' liburuaren aurkezpena ikasleentzat.
- 12:00** Agurtzane Anduetza. 'Esku aldunaren gakoa' liburua. Solasaldia.
- 12:30** Fermin Muguruza. 'Nola?' CD+DVD. Solasaldia.
- 13:00** Entzun!. 'Entzun!' liburua eta 'Pop Pilulak'. Solasaldia.
- 13:30** Fito Rodriguez. 'Egunero egun ero' liburua. Solasaldia.
- 17:00** Noka eta Mikel Markez. 'Noka, Mikel Markez soup' diskoa. Solasaldia.
- 17:30** Anchel Conte eta Joxemari Sestorain. 'Denbora eta egunak' liburua. Solasaldia.
- 18:00** Maider Agirre. 'Bihotzero' liburua. Solasaldia.
- 18:30** Eneko Barberena. 'Periko Solabarria gazteekin hizketan' liburua. Mahai-ingurua.
- 19:00** Mikel Antza. 'Ametsak ere zain' liburua aurkezten. Errezitaldia: Josu Landa, Gotzon Barandiaran eta Itziar Castrillo.

ABENDUAK 5, ZAPATUA

ZUZENEKOAK

- 11:00** Lain. 'Tximeletak' diskoa aurkezten.
- 11:40** Xutik. 'Hameka begirada' diskoa aurkezten.
- 12:20** Haxotz. 'Letaginak' diskoa aurkezten.
- 13:00** Igelaren banda. 'Debalde festa' diskoa aurkezten.
- 13:40** Hesian. 40minuturock abestia aurkezten.
- 14:20** Hibakusha. 'Abuztuak 6' diskoa aurkezten.

- 15:00** Hotzikara. 'Il' diskoa aurkezten.
- 15:40** Nabil. 'Ordu kiskaliak' diskoa aurkezten.
- 16:20** The Friday's Crew. 'Hemen gara' diskoa aurkezten.
- 17:00** Eratu. 'Bidea' diskoa aurkezten.
- 17:40** Arcada Social. 'Sin mirar atrás' diskoa aurkezten.
- 18:20** Revolta Permanent. 'Kimera' diskoa aurkezten.
- 19:00** Voltaia. 'Medusa' diskoa aurkezten.
- 19:40** TikTara. 'Hariak' diskoa aurkezten.

SOLASALDIAK

- 11:00** Mariama Bā. 'Hain gutun luzea' eta Eider Eibar 'Barrukoa' liburuak aurkezten. Solasaldia.
- 11:30** Fernando Anbustegi eta Julio Soto. 'Istori trukean' liburua. Emanaldia.
- 12:00** Bernardo Atxaga. 'Muskerraren bidea' bilduma. Emanaldia.
- 12:30** Bea Salaberri. 'Baionak ez daki' liburua aurkezten. Solasaldia.
- 13:00** Iñaki Petxarroman. 'Kearen fiordoa' liburua aurkezten. Solasaldia.
- 13:30** Joxemari Iturralde. 'Perlak, kolpeak, musuak, traizioak' liburua. Solasaldia.
- 16:30** Beñat Sarasola. 'Bainaren belaunaldia: Ustela, Pott eta Oh! Euzkadi literatura aldizkariet buruzko ikerketa' liburua. Solasaldia.
- 17:00** Gotzon Barandiaran. 'Gidariaren okerra' liburua. Solasaldia.
- 17:30** Jon Arretxe. 'Estolda jolasak' liburua. Solasaldia.
- 18:00** Luis Garde. 'Ehiztariaren isialdia' liburua. Solasaldia.
- 18:30** Gaizka Zabarte. 'Jende desegokia' liburua. Solasaldia.
- 19:00** Jasone Osoro. '12etan bermuta' liburua. Solasaldia.

ABENDUAK 6, DOMEKA

ZUZENEKOAK

- 11:00** Elorri. 'Hamaika dantza eta zenbait doinu berri' diskoa aurkezten.
- 11:40** Maddi Oihenart & SokaHots Orkestra. 'Doi' diskoa aurkezten.
- 12:20** Borja Estankona. 'Ardatza' diskoa aurkezten.
- 13:00** Isuo Sasiia & Jon Murua. 'Idiaren zaintzari buruzko hamar estapak' diskoa aurkezten.
- 13:40** U.K.BILL. 'Ez nago lo' diskoa aurkezten.
- 14:20** Radiator. 'Death Visions' diskoa aurkezten.
- 15:00** Polygorn. 'Polygorn' diskoa aurkezten.
- 15:40** Begiz begi. 'Joan Ihes Egin Baina Lehen' diskoa aurkezten.
- 16:20** Ze Esatek!. 'Inoiz ateratako diskorik onena' diskoa aurkezten.
- 17:00** Larregi. 'Pantomima' diskoa aurkezten.
- 17:40** Klak!son. 'Denboraleak' diskoa aurkezten.
- 18:20** Aguxtin Alkhat. 'Haizeen meneko' diskoa aurkezten.

- 19:00** Izaki Gardenak. 'Aurri gara' diskoa aurkezten.
- 19:40** Tutan Come On. 'Emaidazu Mainstream' diskoa aurkezten.

SOLASALDIAK

- 11:00** Ataramiñe. 'Ataramiñe15' aurkezten (hainbat egile). Solasaldia.
- 11:30** Garikoitz Mendizabal eta Aitor Furundarena. 'Bi poliedro' diskoa. Emanaldia.
- 12:00** Harkaitz Cano. 'Beti oporretan' liburua. Solasaldia.
- 12:30** Andoni Urzelai. 'Karanbola toxikoak' liburua. Solasaldia.
- 13:00** Goizalde Landabaso. 'Babeserako kopia' liburua. Solasaldia.
- 13:30** Ken 7. 'Phoenicoperus' diskoa. Solasaldia.
- 16:30** Mikel Urdangarin. 'Mikel Urdangarin' diskoa. Solasaldia.
- 17:00** Iñaxo Borda. 'Ultimes déchets' liburua. Solasaldia.
- 17:30** Mikel Ayllon. 'Ez tiro egin anbulantziei' liburua. Solasaldia.
- 18:00** Gerardo Markuleta. 'Denbora bere lekura' liburua. Solasaldia eta errezitaldia.
- 18:30** Karnele Jaio. 'Orain hilak ditugu liburua'. Poesia emanaldia.
- 19:00** Teresa Irastortza. 'Mundua betetzen zenuten' liburua. Solasaldia.

ABENDUAK 7, ASTELEHENA

ZUZENEKOAK

- 11:00** Serious Business. 'Really serious' diskoa aurkezten.
- 11:40** Mikel Uraken. 'Neguaren ostean' diskoa aurkezten.
- 12:20** Los Galerna. 'Sangre en el Atlántico' diskoa aurkezten.
- 13:00** Muskulo. 'Triku bat errepidean' diskoa aurkezten.
- 13:40** Hutsa. 'Amnesia' diskoa aurkezten.
- 14:20** Niketz. 'Une Motz Gozoak' diskoa aurkezten.
- 15:00** Elustondo. 'Elustondo' diskoa aurkezten.
- 15:40** Pecoza United. 'Homonomoa' diskoa aurkezten.
- 16:20** Han. 'Han' diskoa aurkezten.
- 17:00** Bullets of Misery. 'Summum post Mortem' diskoa aurkezten.
- 17:40** Sueder. 'Bazan ordue' diskoa aurkezten.
- 18:20** Bilbomatiks. 'Bilbomatiks' diskoa aurkezten.
- 19:00** Skasti. 'Maskarak' diskoa aurkezten.
- 19:40** Kometa. 'Grabitatea' diskoa aurkezten.

SOLASALDIAK

- 11:00** William A. Douglass. 'Bizi ondorengo heriotza: Nevadako kontakizunak' liburua. Solasaldia.
- 11:30** Patxi Zubizarreta. 'Laranja bat zaborretan' liburua. Solasaldia.
- 12:00** Adur Larrea. 'Gabriel Aresti, BioGrafikoa' nobela grafikoa. Solasaldia.

- 12:30** Ali Salem Iselmu eta Xabier Monasterio. 'Beduino bat Karibe aldean' liburua. Solasaldia.

- 13:00** Bide Ertzean eta Metrokoadroka. 'Nola belztu behar zuria'. Solasaldia.
- 13:30** Mikel Rodriguez. 'Aratz II. Izuaren dorrea' liburua. Solasaldia.
- 16:30** Parradust Ceol Project. 'Herri txikiak bihotz handiak' diskoa. Solasaldia.
- 17:00** Miren Amuriza. 'Kapulana bat zintzilik' liburua. Emanaldia.
- 17:30** Maite Gurrutxaga eta Uxue Alberdi. 'Besarkada' liburua aurkezten.
- 18:00** Juanra Madariaga. 'Espedizioa' liburua. Emanaldia.
- 18:30** Harkaitz Cano, Oier Aranzabal eta Rafa Rueda. 'Nola egin abesti baten bertsioa, bidean galdu gabe'. Mahai-ingurua.
- 19:00** Pierre Mestrot. 'Oroit hadi' liburua. Solasaldia.

ABENDUAK 8, ASTEARTEA

ZUZENEKOAK

- 11:00** PAM. 'Hurrengoan bai' diskoa aurkezten.
- 11:40** Iseka. 'Bizi ala hil' diskoa aurkezten.
- 12:20** Josu Bergara. 'Kanta txikien indarra' diskoa aurkezten.
- 13:00** Bi Bala. 'Gure eroyak' diskoa aurkezten.
- 13:40** MG Banda. 'MG Banda' diskoa aurkezten.
- 14:20** Zazkel. 'Beta' diskoa aurkezten.
- 15:00** Galtza Gorriak. 'Galtza Gorriak' diskoa aurkezten.
- 15:40** Nik Khaos. 'Eztanda' diskoa aurkezten.
- 16:20** Pelax. 'Cowboy's Orchestra Saiok' diskoa aurkezten.
- 17:00** Seiurte. 'Ezpalak' diskoa aurkezten.
- 17:40** Atzekabe. 'Amets baten istorioa' diskoa aurkezten.
- 18:20** Etorkizun Beltza. 'Esnatu gara?' diskoa aurkezten.
- 19:00** Hi Exekutibo. 'Kondria guztiak' diskoa aurkezten.
- 19:40** DZAUST!. 'Dzaust!' diskoa aurkezten.

SOLASALDIAK

- 11:00** Xabi Soubelet. 'Elektroxok' liburua. Solasaldia.
- 11:30** Joseba Aurkenerena. 'Kaskarin baten kontakizunak' liburua. Solasaldia.
- 12:00** Jean-Louis Davant. 'Bidean kantatsez' liburua. Solasaldia.
- 12:30** Xabier Lizaso eta Andoni Egaña. 'Garai hura gara diskoa'. Emanaldia.
- 13:00** Maiatz. 60 eta 61 literatur aldizkariak. Solasaldia.
- 13:30** EIE. 'Hegats' literatur aldizkaria. Solasaldia.
- 17:00** Jean Mixel Bedaxagar. 'Belatxa' diskoa. Solasaldia.
- 17:30** LeKord. 'Sokak'. Durangoko Azokako 50. urtemugako ikuskizuna.

A. Urreta
podóloga

Abinara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea,
10, behea - 48200
DURANGO

Tel./Faxa: 946 215 404

katerin ardoak

inaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburueta menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com



Durangaldeko Han taldea da Ahotsenean ikusi ahalko den 70 taldeetako bat.



LeKord taldeak musika eta literatura uztartzen dituen ikuskizuna eskainiko du.

Liburuen pasarteak irakurriko dituzte solasaldien gunean

Azalpenak osatzeko liburuetako testu zatiak ere irakurriko dituzte Ahotsenean

> AHOTSENEA J. Derteano

Ahotseneak 2015eko diskoen eta liburuen aurkezpenak hartuko ditu urtero legez. Zuzenekoan karpan 70 musikarik eta musika-taldek aurkeztuko dute beren lana kontzertuen bidez. Solasaldien gunean, berriz, 50 sortzaile inguruk —idazleak batez ere, baina baita musika-

120

70 zuzeneko eta 50 sortzailearen solasaldiak izango dira Ahotsenean

riak ere— parte hartuko dute hainbat formatutan: solasaldia, mahaingurua, ikuskizuna, emaldi akustikoa...

Aurten solasaldien guneak nobedade bat dauka. Horrela gura duten idazleek atril bat izango dute ondoan, solasaldia hasi baino lehen eta amaitu aurretik, aurkezten duten liburuen

pasarteak irakurtzeko: “Gero eta gehiago dira formatu hibridoak egitera animatzen direnak. Testuak irakurrita, solasaldiei beste freskotasun bat eman daiekela uste dugu. Ahotsenera batzen den ikus-entzuleak ez du liburua ezagutzen, eta hari buruzko azalpenez gainera liburu horretako testuren bat ere helarazten bazaio, aurkezpen beteagoak izan daitezkeela uste dugu”, dio Ahotseneako koordinatzaile Lutxo Egiak.

Gainera, Azokako hiru egunetan, irakurketa horiek LeKord taldeko lagunek gauzatuko dituzte. Ane Artetxe arpa-joleak lagunduta, Amaia

Irazabalek eta Amaia Ruizek testuen irakurketa dramatizatuak egingo dituzte zapatuan, domekan eta astelehenean. Gainerako egun bietan ere atrila hantxe egongo da, gura duten sortzaileen eskura.

Ikuskizun musiko-literarioa

Ahotseneak ere bat egin gura du Durango Azokaren 50. urteurrenagaz, eta hori ospatzeko ekitaldi bat antolatu dute. Horrela, martitzenean, Azokaren azken egunean, LeKord taldeak musika eta literatura uztartzen dituen ikuskizuna eskainiko du Ahotsenean 17.30etik 18.30 ingurura.

Aurkitu zure izarra Durangaldean.

15 urte baino gehiago, Durangalde erdi-erdian, geure bezeroei hurrengo zerbitzuak eskaintzen daramagu:

- Ibilgailu berriak, autoak eta furgonetak
- Bigarren eskuko ibilgailuak
- Mekanikan eta karrozerian osoko tailer-zerbitzua, auto, furgoneta eta kamioiak



AGUINAGA TALDEA

Bizkaiko Mercedes-Benz kontzesionario ofizial bakarra
info@aguinaga.es · www.aguinaga.es

Boroa Industrialdea, 2. Nabea 3
48340 ZORNOTZA
Tel.: 94 630 17 47





dagoeneko
%80
baina gehiago
salduta
☆☆☆

**azken
aukerak
ez galdu**

ERROTARITXUENA DURANGO

Errotarixuenaren
arrakastaren arrazoiak:

- Finantzatzeko **ERRAZTASUNAK**
- ASKOTARIKO** tipologiak (1, 2, 3 eta 4 logela)
- Terrazak etxebizitza **GUZTIETAN**
- Mugarra alderako **BISTA** garbiak
- Barneko **PLAZA** zabala
- Auzoari **BURU EMATEA**
- Gauzatzeko **URBANIZAZIO KARGARIK GABE**
- SALTOKIAK** eraikinetik oso gertu
- Berdeguneak eta **LASAITASUNA**
- ARRISKURIK GABEKO** aukera

BALDINTZA BERRIAK KONTSULTATU



www.solvía.es Sabadell Guipuzcoano 

946 46 20 41 
www.sukia.com 

 **sukia** Zure etxean zaude
Estás en tu casa

Txiki eta handien elkargune izan gura duen plaza: Saguganbara

Seme-alabenganako transmisioak hartuko du garrantzia, aurten, Saguganbaran

> SAGUGANBARA A. Basauri
Saguganbara. Magiaz eta irudimenez betetako txokoa, guraso eta seme-alabek hizkuntzarekin jolasteko plaza, bizi-bizi dator aurten ere. Sorkuntza tailerrak, ipuin-kontalariak, musika emanaldiak... Askotariko ekintzekin gozatzeko aukera izango dute etxeko txikiak. Baita nagusiek ere. Izan ere, Durangoko Azokak 50 urte bete dituen honetan berezko garrantzia hartuko du transmisioak bertan.

Berbaro euskara elkarteak Itsaso Gangoitiaren berbetan, "jolasteko bakarrik ez, umeek era aktiboan ikasteko gunea ere bada Saguganbara, eta, horretarako oso garrantzitsua da ume zein helduen parte hartzea". Azken urteetako bideari utsita, txikienentzako azken sorkuntzak aurkezteko aterpe izango da Saguganbara. Tartean, *haurliteraturaretoa.eus* webgunea ere aurkeztuko du Berbaro elkarteak.

"Jolasteko bakarrik ez, umeek aktiboki ikasteko gunea ere bada Saguganbara"

Genero ikuspegia landuko dute, aurten, datozen egunotarako prestatu dituzten tailerretan

Aurten izango diren tailerretan, berriz, genero ikuspegia landuko dute. Horrela azaldu du Gangoitiak. *Ipuin zaharrak ipuin berri* izenburupean, Haur Literatur Aretoan landutakoak ekarriko dituzte txikien plaza: "Hezkidetza ikuspegitik moldatuko ditugu garai bateko ipuinak, eta, arlo horretan aditu direnen laguntza izango dugu

horretarako", gaineratu du Berbaroko kideak.

Gazteei bidea emanez

Horrez gain, ipuin kontalari gazteei eskainiko die lekua Saguganbarak, aurten. Miren Erdoiza durangarra edota Joana Oregi gernikarra arituko dira, Pello Añorga edo Antton Caza-bonekin batera. Pako Aristi eta Miren Uribelarrea ere hurbilduko dira bertora. Baita Pirritx Porrotx eta Marimots ere.

Irakurmena eta txakurrak

Berrikuntzen artean, *Irakurmen txakurra* deritzon jarduera ere aurkeztuko dute ume txiki eta handien gunea den honetan. Txakurren bitartez irakurmena sustatzea helburu duen ekimen horren bultzatzaileak dira Gukan taldeko Naroa Ibarretxe eta Ibai Fernandez. Lukas eta Duah txakurrak izango dira eurokin abenduaren 7an eskainiko duten emanaldian.



Ume eta helduek elkarrekin jolastu eta ikasteko aukera dute Saguganbaran.



Ipuin kontalari gazteei lekua eman gura izan die aurten txikien txokoa.

SAGUGANBARAKO EGITARUA

ABENDUAK 4, BARIKUA

ARETO HANDIA

10:30 'Zirrikitutik' tailerra. Emagin elkarteak. Hiru saio ikasleentzat.

15:00 Liburu erraldoiaren sari banaketa. Berbaro Elkarteak.

17:30 'Pirritx, Porrotx eta Marimots'. Ikuskizuna. Familia osoarentzat.

ARETO TXIKIA

10:30 'Barrenetik' tailerra. Irati Eguren. Hiru saio ikasleentzat.

ABENDUAK 5, ZAPATUA

ARETO HANDIA

11:00 'Albumak kontatzen familietan'. Ipuin kontaketa. 4-7 urte. Pello Añorga.

12:00 'Irria' aldizkariaren 5. urteurrena. Ikuskizuna. Irrien Lagunak.

13:00 'Zozomikoteak'. Ipuin kontaketa. Jexux Eizagirre.

13:30 'Chertat eta lehoia'. Ipuin kontaketa. Jexux Eizagirre.

16:00 'Amilami'. Ipuin kontaketa musikatua. 4-10 urte. Pantzart.

17:00 'Munstroek ere pixa egiten dute ohean'. Aurkezpena. 5 urtetik gorakoentzat. Jokin Mitxelena eta Pello Añorga.

18:00 'Olentzero eta Mari Domingi'. Ipuin kontaketa. Pello Añorga.

ARETO TXIKIA

12:00 'Orri-markatzailea'. Tailerra. 6-10 urte. Bizkaiko Foru Aldundia eta La Encartada Fabrika-Museoa.

16:00 'Artea eta ingurumena'. Tailerra. 6-12 urte. Igela Manuela Kultur Elkarteak.

17:00 'Buztinarekin jolastuz eta sortuz'. Tailerra. 6-12 urte. Igela Manuela Kultur Elkarteak.

18:00 'Munduko abestiak'. Tailerra. 5-9 urte. Igela Manuela Kultur Elkarteak.

19:00 Musika tailerra. 10-12 urte. Igela Manuela Kultur Elkarteak.

ABENDUAK 6, DOMEKA

ARETO HANDIA

11:30 'Alizia herrialde miresgarrian. Aurkezpena'. 8 urtetik gorakoentzat. Manu López Gaseni.

12:30 'Orain' kontzentrazioa lantzeko erlaxazio ariketak DVDa. Aurkezpena. Familia osoarentzat. Hik Hasi.

13:30 'Ene kantak, baietz kantatzen hasi!' Ikuskizuna. 2-8 urte. Urko Oskoz eta Oiane Yarza.

17:30 'Kai, txakur bidaiaria'. Ipuin kontaketa. 4-7 urte. Onintze Goitiz.

ARETO TXIKIA

11:00 'Liburu bat mundu bat'. Ipuin kontaketa. 0-3 urte. Mestiza Elkarteak.

12:00 'Liburu bat mundu bat'. Ipuin kontaketa. 4-6 urte. Mestiza Elkarteak.

17:30 Orri-markatzailea. Tailerra. 6-10 urte. Bizkaiko Foru Aldundia eta Txakolingunea.

ABENDUAK 7, ASTELEHENA

ARETO HANDIA

11:00 Haurliteraturaretoa.eus webgunearen aurkezpena. Berbaro Elkarteak.

12:00 'Armiarma txiki baten epopeia handia'. Ipuin kontaketa. 8-12 urte. Pako Aristi eta Miren Uribelarrea.

13:00 'Kontutxoak'. Ipuin kontaketa. 3-6 urte. Miren Erdoiza.

17:00 'Kontu eta Kantu'. Ipuin kontaketa eta kantaldia. 4-9 urte. Fernando Anbustegi.

18:30 'Kale Kantoi'. Aurkezpena. Familia osoarentzat. Txatxilipurdi Elkarteak.

ARETO TXIKIA

12:00 'Irakurmen txakurra'. Ipuin kontaketa. 6-11 urte. Naroa Ibarretxe, Ibai Fernandez, Lukas eta Duah (txakurrak).

16:00 'Bazen bitan'. Heziketa tailerra. Familia osoarentzat. Berbaro Elkarteak.

17:30 Orri-markatzailea. Tailerra. 6-10 urte. Bizkaiko Foru Aldundia eta La Encartada Fabrika-Museoa.

ABENDUAK 8, ASTEARTEA

ARETO HANDIA

11:00 'Kontukantari'. Aurkezpena. La naranja enana.

12:00 'Bi kutxatxo'. Ipuin kontaketa. 7-10 urte. Antton Kazabon.

13:00 'Hitz jolasak'. Ipuin kontaketa eta hitz jolasak. Antton Kazabon.

16:30 'Nire bihotzeko ipuinak'. Ipuin kontaketa. 4-10 urte. Joana Oregui.

ARETO TXIKIA

12:00 Orri-markatzailea. Tailerra. 6-10 urte. Bizkaiko Foru Aldundia eta Txakolingunea.

16:00 'Kantu-jolas'. Tailerra. Familia osoarentzat. Berbaro Elkarteak.

ABENDUKO SARIAK



HITZ LIBURU-DENDA. LIBURUA ETA DVDA
Patrick Modianoaren "Udaberi alua" liburu eta "Ice Age 3: dinosaurioen egunsentia" DVDA.



GOIATZ MURUA ETA AINHOA ELORZA
PODOLOGIA KLINIKA. KIROPODIA KONTSULTA
Oinen tratamendurako kontsulta bat: gogorguneak, azazkaletako arazoak...



SALTSAN. EGUEN SALTSAN
Kalitate handiko produktuen dastaketa, 2 pertsonentzat. 4 egile-pintxo, 2 ardorekin lagunduta.



LAPIKO JATETXEA. MENUAK
2 pertsonentzako menu berezia igande eguerdirako.



SAN AGUSTIN. TXARTELAK
San Agustin bazkide txartel bat eta San Agustin txikitxartela.



IRABAZLEAK

- > **FORUM SPORT. PULTSOMETROA**
Maite Areitourtena Bizkarra
- > **LAPIKO JATETXEA. MENUAK**
Josu Errazti Elorza
- > **SAN AGUSTIN. TXARTELAK**
Pedro Azpitarte Usaola
- > **HITZ LIBURU-DENDA. LIBURUA ETA DISKOA**
Aitor Iturriaga Zugaza-Artaza
- > **SALTSAN. EGUEN SALTSAN**
Mertxe Ariznabarreta

anboto
komunikabideak

@anboto

Anboto
Komunikabideak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org

Tel.: 946 816 558



'Itsasoari negar' eta 'Tren geltokia' antzezlanetako uneak.

Euskarazko obren 'trailerrak' ikusleen artean irrika pizteko

Antzerki Maratoian zortzi antzezlanen 15 minutuko zati laburrak ikusi ahalko dira

> **SZENATOKIA** J. Derteano
Domekan euskarazko zortzi antzezlanen lagin edo zati laburrak ikusteko aukera egongo da San Agustin kulturgunean. Filmetako trailerretan lez, sortzaileak ikusleen irrika pizten saiatuko dira asko jota 15 minutu iraungo duten emanaldiekin. Antzezlaneko obra zatia edo moldaketa bat izan daiteke. Szenatokiko Antzerki Maratoiak Euskal Herriko antzerkiaren erakusleho izatea du helburu.

Domekan, 12:00etan izango da lehen emanaldia: *Bohemioen kluba*. Bigarren mundu gerraren ostean, Parisen girotuta dago antzezlan. Ostean, *Itsasoari negar* lanak itsasoa benetan ezagutzea amesten duen nes-

katxa baten istorioa kontatuko du. Gai mundutarragoa dakar *Ekoetikopatetikobikoa* obrak: alokairu-kontratuaren berri-tzea eztabaidagai bihurtuko da pisukide birentzat. Goizeko txanda *Bertsolaritzaren sekretuak, isilduriko emakumeen historia* emanaldiak itxiko du. Bertan, historiari sekretuan gorde dituen emakume bertsolarien oroimena berreskuratuko dute, euren bizitzako egoerak gogoratuta, eta narrazio, bertso eta musikak lagunduta.

Eltxoak lanari buruzkoa da arratsaldeko lehen saioa, 18.00etan. Protagonista konturatu da eltxoak ez direla odola xurgatzen dioten bakarrak, eta egoera horri aurre egiteko

superheroi bihurtuko da. *Tren geltokia* lanean oso bereziak eta ezberdinak diren hiru pertsonaiaren arteko gorabeherak kontatuko dituzte. *Sei ispiluk* norbere mamuen eta mugen gainean hausnartzen du, eta haiei aurre egin beharraz dihardu. Maratoia amaitzeko, umorez eta musikaz osatutako ar-rerapena eskainiko dute *Putinen Guardasola* laneko egileek.

Antzerki eskolei buruz

Antzerki arloko gaiei buruzko ikuspuntuak batzen ditu urtero *Kafie eta Berba* mahainguruak. Aurten, antzerki eskolen gainean jardungo dute hainbat adituk zapatuan, 12:00etan, kulturguneko *hallean*.

SZENATOKIA GUNEKO EGITARAUA

ABENDUAK 4, BARIKUA

10:30 Zirko tailerra. Hiru saio ikasleentzat.

19:00 Sarrera ekitaldia.
* Gonbidapena beharrezkoa da ekitaldira joateko.

ABENDUAK 5, ZAPATUA

12:00 'Kafie eta berba'. Antzerki eskolak mintzagai.

20:00 'Gaeen argi' emanaldia: Argizaiola Saria Sarituak: Gerediaga Elkartearen sortzaileak. Emanaldiaren zuzendaritza: Karrika Antzerki Taldea.
* Gonbidapena beharrezkoa da ekitaldira joateko.

ABENDUAK 6, DOMEKA

Antzerki maratoia.
Ordu laurdeneko antzezlan zatiak. Paseen artean antzezleekin mokadua eta txakolina konpartitzeko aukera.

Goizean lau antzezlan zati:
12:00 'Bohemioen Kluba'. Taupada Antzerki Taldea.
12:30 'Itsasoari negar'. Ze Onda Taldea.
13:00 'Ekoetikopatetikobikoa'. Atea Teatro.
13:30 'Bertsolaritzaren sekretuak, isilduriko emakumeen historia'. Zaharrak Berri.

Arratsaldean lau antzezlan zati:

18:00 'Eltxoak'. Zanzara Taldea.
18:30 'Tren Geltokia'. Zirka Zirkus.
19:00 'Sei ispilu'. Tripak kolektiboa.
19:30 'Putinen Guardasola'. Ramon Agirre eta Inazio Tolosa.

ABENDUAK 7, ASTELEHENA

20:00 'Eskutitzak' antzezlan
2014ko Zubi deialdiaren irabazlea.
Sortzaileak: Itziar Elias eta Izaskun Arandia.
Zuzendaritza: Izaskun Arandia.
Aktoreak: Itziar Elias, Aitor Fernandez, Iosu Florentino, Josean Bengotxea, Olatz Beobide eta Aiora Sedano.

ABENDUAK 8, ASTEARTEA

18:00 'Zirko Anabasa'
Euskal Herriko zirkuaren lagina. Pantxika Lamurrek aurkeztuko du ikuskizuna. Parte hartzaileak:
• Shakti Olaizola kontorsionista.
• Cie Mes Tissages Aériens, oihal aereoarekin.
• Ortzi Acosta, paraleloetan.
• Debote Enbete malabarista.
• Malas Compañías akrobatak.



Cie Mes Tissages Aériens lapurtarrak oihal aereoarekin.



Shakti Olaizola kontorsionista.



Debote Enbote konpainiako malabarista pilotekin.

Zirkoari lotutako disziplina anitzak San Agustinen gozagai

Euskal Herrian zirkoari lotutako arte eszenikoen eremuan dabilzan hainbat artista daude, eta horietako batzuk batuko ditu Zirko Anabasa ikuskizunak

> SZENATOKIA J. Derteano Malabarismoa, akrobazia, kontorsionismoa... Disziplina ugari daude zirkoaren munduari lotuta. Euskal Herrian ere badira teknika horiek lantzen dituzten artistak. Teknika tradizionaleraino imaginazioa eta lana gehituta, ikuskizun berri eta nobedosoak sortu eta herriz herri erakusten dituzte. *Zirko Anabasa* ikuskizunak artista horietako batzuk batuko ditu Durangoko San Agustin Kulturgunean, Szenatokian, abenduaren 8an, 18:00etan.

Euskal Herria “ez da superpotentzia bat zirkoari dagokionez”, dio ikuskizuneko koordinatzaile Gorka Gansok, “baina gauza interesgarriak egiten dira, eta jendeak ez ditu ezagutzen”. Beraz, Euskal Herrian arlo horretan egiten den lana “erakustea” du helburu *Zirko Anabasak*.

Ikuskizunak irauten duen ordu eta laurdenan hainbat artista igaroko dira oholzatik. Bakoitzak bere esparruan lantzen duenaren lagin bat erakutsiko du: “Zirkoaren eremuan eta arte eszenikoei lotuta lanean dabilzanen gala edo cabaret txiki bat izango da. Egiten denari begiratu arin bat ematea

ahalbidetuko du ikuskizunak”. Pantxika Lemur pailazoa izango da erakustaldiak aurkeztuko dituen aurkezlea. Ikuskizunari batasuna emateaz gainera, umorea gehituko dio.

Euskal Herri osotik etorriko dira artistak. “Ez dugu beren beregi hori bilatu”, baina horrela

Gorka Ganso: “Lan interesgarriak egiten dira Euskal Herrian eta jendeak ez ditu ezagutzen”

Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko artistak batuko dira San Agustinen

suertatu da. Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko artistak datoz.

Shakti Olaizola kontorsionista gipuzkoarrak bere *Irakurtzen* ikuskizuneko zati bat erakutsiko du. Cie Mes Tissages Aériens talde lapurtarra oihal aereoarekin “jolasean” arituko da

lurretik hainbat metrora, mugimenduen zailtasunari arrisku sententzia txertatzen.

Cirque du Soleil-en urteetan ibili den Ortzi Acosta arabarrak barra paraleloetan jardungo du. Bizkaiko ordezkaria Debote Enbote konpainiako Gorka Pereira malabarista da; lurrean edo horman errebotatzen duten pilotekin egiten ditu malabareak. Pereira Zorrozaurre dagoen Zirkozaurre eskolako sustatzailea da.

Azken gonbidatuak Malas Compañias taldekoak ziren, baina lesio baten ondorioz ezingo dute euren lan berriaren aurrerapena erakutsi. Zirika Zirkus nafarrek ordezkaturako dituzte euren akrobaziekin.

Hartuemanak sustatzeko *Zirko Anabasa* artistak euren artean elkar ezagutzeko ikuskizun aproposa izan daitekeela uste du Gansok: “Elkargunea izan daiteke hartuemanak sendotzeko, ez publikoari begira bakarrik, baita gure artean ere. Mundu hau txikia denez, gustatzen zaigu elkar ezagutzea, sorkuntzarako edo informazio trukaketarako baliagarria delako”, azaldu du Ganso and Cia konpainiako kideak.

Gerra Zibileko maitasun debekatua, ‘Eskutitzak’ obran

Itziar Eliasek bere aitita-amamen istorioa hartu du sormenerako abiapuntutzat



Itziar Elias —irudian— eta Izaskun Arandia dira antzezlanaren sortzaileak. Abararanburu.com

> ANTZEZLANA J. D.

Szenatokiko eskaintza zabala baten, Gerra Zibileko maitasun debekatu baten istorioa kontatzen duen *Eskutitzak* antzezlanak ikusteko aukera egongo da abenduaren 7an, 20:00etan, San Agustin Kulturgunean.

1936an kokatzen da antzezlanak, eta maitasun istorio debekatu bat kontatzen du: frankista aberats baten alaba ondoko herriko postari gorriaren semearekin maitemintzen da, eta zailtasunez betetako bideari ekiten diote.

Itziar Elias aktore eta sortzaileak etxean aurkitu zituen bere aitita-amamen idatzitako gutunak dira obraren abiapuntua. Oinarriko istorioa erreala da, baina fikziotik ere asko du antzezlanak. Aitita-amamen gutunetan agertzen zen informaziotik abiatuta, sormen lana egin dute, bien arteko amodio istorio konplikatu kontatzeko. Obra osatzeko, askotariko artxiboak ere arakatu dituzte dokumenta-

zio gehiagoren bila. Eliasekin batera Izaskun Arandia ere ibili da sormen lanean. Eliasek aktore lanak ere egingo ditu, besteak beste, Olatz Beobide eta Josean Bengoetxeagaz batera.


Oholtzako zuzeneko eszenegain, protagonistari gertatu ez arren istorioaren garapenareko garrantzitsuak diren pasarteak pantaila baten proiektatuko dituzte, aurrez grabatutako irudiekin.

Frankista aberats baten alaba herriko postari gorriaren semearekin maitemintzen da

Eliasek etxeko istorio baten oinarritzen da antzezlanak, baina fikziotik ere asko du

Eskualdeko argitalpenak

Durungaldeko idazleek eta musikariek 2015. urtean liburu eta disko forman egindako sorkuntzen ale hauek eskuragarri izango dira Durangoko Azokan



Aita Gurea
Iñaki Irasizabal
Argitaletxea: **Elkar**

Azken urteetan kaleratu dituen nobeletan bezala, genero beltza landu du Iñaki Irasizabal zornotzarrak *Aita Gurea* nobelan. Autogintzarako piezak fabrikatzen dituen lantegi txiki baten kokaturiko istorioa da. Pertsonaien arteko gaizki-ulertuak, etsaitasunak eta hainbat heriotza kontatzen ditu, eta harremanez, familia-loturez eta drogaren eraginaz ere badihardu idazleak.




Arte kritika eta flamingoak zeru berdean
Mikel Onandia
Argitaletxea: **Sans Soleil**

Mikel Onandia arte historialari durangarrak duela gutxi kaleratu du *Arte kritika eta flamingoak zeru berdean* liburua. Bertan, azken urteetan argitaratu dituen arte kritiken bilduma egin du.

Durungaldeko Argitalpenak erakusmahaiaren eskuratu ahal izango da liburua. 150 kritikatik gora ditu argitaratuta, baina liburuan 100 jaso ditu.

Armiarma txiki baten epopeia handia
Pako Aristi. Miren Uribelarrearen ilustrazioak
Argitaletxea: **Erein**

Pako Aristiren *Armiarma txiki baten epopeia handia* liburua ilustratu du Miren Uribelarrea gazte durangarrak. Erein argitaletxeagaz kaleratu dute, eta 7 eta 10 urte artekoak zuzenduta dago. Uribelarrearen ilustrazioek liburu baten argia ikusi duten lehen aldia da. Aktorea ere bada Uribelarrea, eta, antzerkigintzan bezala, marraztean, pertsonaiaren azalean jartzea bilatzen duela esan du.



Jende desegokia
Gaizka Zabarte
Argitaletxea: **Susa**

Peter Zuazo protagonistak jasotzen duen gonbidapen bat da nobelaren abiapuntua: Desegokien Elkarteak antolatu duen topaketa baten parte hartzeko gonbita. Elkarte horretako kideen eta Zuazoren bizitzak gurutzatzen direnean sortzen diren gorabeherak kontatzen ditu nobelak. Zuazogaz batera, Odile Mores da Gaizka Zabarte zaldibartarraren laneko beste protagonista.



Puzkertin
Xabier Mendiguren eta Eider Eibar
Argitaletxea: **Elkar**

Eider Eibar ilustratzaile zornotzarrak eman dio kolorea Xabier Mendigurenek haurrentzat idatzi duen liburu berriari.

Liburuan, Peruren puzker bat Marixeren galtzerdi baten barruan sartzen da, eta elkarre horretatik izaki harrigarri bat sortuko da: *Puzkertin*. Bestalde, *Barrukoa* izeneko lana ere badakar Eibarrek Azokara.



Astola: ikerketa eta historia
Txelu Angoitia koordinatzaile
Argitaletxea: **Gerediaga**

Gerediaga elkarteak lantzen duen *Astola* aldizkariak ikerketa eta historia lanak dakartzu aurretik ere. Dagoeneko bederatzigarren alea beteko du Durungaldea aztergai duen urtekariak. Hainbat gai landu dituzte: Gerediagaren 50. urteurren, 'Atxarte Bizirik' aldarrikapena harrobietan, Tabira uriaren jatorria, Elorrioren 1936ko gerran gertatutakoak, Lorentzo Records estudioa...

Ezpalak
Sei urte
Argitaletxea: **Estoldetan**


Hamaikagarren grabazio lana aurkeztu du aurretik, hogeituroko ibilbidea daukan Berrizko Seiurte taldeak. Zortzi kantuko diskoa da *Ezpalak*, Berrizko Estoldetan estudioan autoekoitzirikoa. Zenbait kritikariren arabera, inoiz erakutsi duten nortasun artistikorik sendoena dakarte lan berriari. Melodia distiratsuak eta sonoritate trinkoak entzun ahal dira, besteak beste.




Patata Patata!
Miren Amuriza
Argitaletxea: **Elkar / Katxiporreta**

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren istorioak kontatuko dizkigu Miren Amurizak. Tider da protagonista. Saharako da eta herrimina du. Pirritx, Porrotx eta Marimototsen laguntza ezinbestekoa izango da gure artean arrotz ez sentitzeko eta pozik egoteko.

Bestalde, SuperH argitaletxeagaz *SuperH hontz zuriaren lurraldean* ipuina ere idatzi du bertsolari berriztarrak.



**Karanbola Toxikoak**

Andoni Urzelai
Argitaletxea: **Susa**

Hamazazpi ipuinek osotzen dute Urzelairen *Karanbola Toxikoak* liburua. Bizitzea tokatu zaien bizitzarekin konforme ez dauden pertsonaiak ditu protagonista, eta errealitatearen kontakizun bihurri bat dela esan du idazleak. Narrazio bakoitza independentea den arren, batak bestearekin lotura du. Ipuin eta pertsonaia guztiak, modu batera edo bestera, elkarrekin harremanetan daude.

Bestalde, *Demencia* izeneko liburua ere argitaratu du Urzelai, kasu honetan gaztelaraz.

**Lapur banden etika ala politika**

Joseba Sarrionandia
Argitaletxea: **Pamiela**

Iaz Mondragon Unibertsitateak antolatutako Euskal Kulturaren Transmisioa graduondokorako berbaldi bi prestatu zituen Joseba Sarrionandia idazle iurretarrak, eta lan hori oinarri hartuta landu du *Lapur banden etika ala politika* saiakera liburua.


Alde batetik, azken urteetako bilakaera politikoa aztertu du, eta bestetik, literaturaz eta kulturaz hausnartu du. Gainera, graduondokoan parte hartu zutenen ikasle batzuen ekarpenak ere jaso ditu, Pamielako arduradunek azaldu dutenez.

Jururú

Jose Enrike Urrutia Capeau
Argitaletxea: **Pamiela**

Jururú da espainolek Kuban lehenbizi jo zuten badia. Ordukoan, indioek inguruari eman zioten izenari eutsi zioten inbasoreek. Narrazio bilduma honetan, gaur egungo Jururúko bizilagunekin bat egin du Jose Enrike Urrutia egile iurretarrak; bertako arrantzaleekin harrigarriro mimitizatu da.

Bere begiez ikusia eta bere belarriez entzuna izkiriatu digu, irakurlea espazioan eta denboran urruneko gertatzen zaigun mundura eramateraino. Euskaraz, eta 144 orrialdetan.

**Libelula**

Sermonds
Diskoetxea: **Mauka**

Durangaldeko Sermonds musika taldeak disko berria dakar Durangoko Azokara. *Bidegurutzean* lanagaz hartu zuten norabideari eutsi, eta sei kantuz osatu dute *Libelula* diskoa. Sermond's taldeko kideek azaldu dutenez, bai konposatzean, bai grabazioan gustura egin zuten bidea izan zelako erabaki dute formatu bera baliatzea.

Gainera, disko osoak barik kanta solteak entzuteko dagoen joerak ere horretarako arrazoiak ematen dituela uste dute Sermondseko kideek.

**MMXV**

Mikel Urdangarin
Diskoetxea: **Elkar**



Mikel Urdangarin zornotzarrak, bere *MMXV* diskoagaz, apustu berezi eta zintzoa erakutsi digu, urte hasieratik bakarka eskaini dituen kontzertuen bilduma baita, zuzenean eta bakarka grabatutakoa. Biluztasun horretan aurkezturik, kantariak abestietan duen segurtasuna eta konfiantza aurkeztu nahi digu, aurretik publikoarena jaso baitu. Hamazazpi urte dira kantagintzan hasi zenetik, eta urteotan ez du sekula bakarka kantatu Urdangarinek.

Han

Han
Diskoetxea: **Bonberenea ekintzak**



Elorrioko laukotearen lehenengo diskoa da *Han*, taldearen izena daramana, beraz. Karlos Osinagagaz Bonberenea estudioetan grabatu dute, eta Osinaga arduratu da ekoizpenaz eta masterizazioaz ere. Bonberenea Ekintzak-en eskutik, KD eta LP formatuetan argitaratu dute.

Bederatzi kanta biltzen ditu Han taldearen lehenengo diskoak, eta duela bi urte sortutako taldearen ibilbide osoaren isla da. Emaizagaz oso pozik daude taldekideak.

Garaitu ez gaituztelako

Iheskide
Diskoetxea: **Mauka**

Elorriko sustraitutako Iheskide taldearen bosgarren lan luzea da *Garaitu ez gaituztelako*. Hamar abestiz osatutako lana da, eta eboluzio bat izan duten arren, betiko esentziari eustea izan da taldekideen asmoa. Borrokarako deia egiten dute, euren ibilbide osoan egin izan duten lez.

Kartzela, munduko errefuxiatuen etorrera, ixteko arriskuan dagoen Elorrioko Portalekua taberna... Hainbat salaketa eta aldarrikapen jasotzen dituzte disko berriko abestietan.

**Andrazkubak**

D Capricho
Diskoetxea: **Erroa**

Bilboko Zenbat Gara euskara elkarrearen ekimenez, Erroa izeneko argitaletxea sortu berri da, eta hainbat liburuz aparte, diskoak ere kaleratuko dituzte. Horietako bat da *Andrazkubak*, D Capricho taldearena. Kubako bi ahizpak osatzen dute taldea, eta Berrizen egonkortuta dago eurretako bat. Euren bilduma berria dakarte aurtengo Durangoko Azokara.

Erritmo kubatarra zabaltzen dute euren musikan, eta gaztelaraz gainera euskaraz ere abesten dituzte abesti batzuk.



Kontzertuz betetako egunak Plateruenerako oholza gainean

Azokako egunetan disko berrien aurkezpenak egingo dituzte kafe antzokian

> PLATERUENA Jone Guenetxea Plateruena kafe antzokia prest dago hurrengo egunetan Durangoko Azokaren harira antolatuko dituen ekitaldiei aurre egiteko. Gaur, abenduaren 4an, ikastetxeen txanda izango da, Ikasle Egunerako kontzertu berezia prestatu dute eta. Berrizko Kohatu taldea bidelagun hartuta, euskal kantagintzaren inguruko transmisioa landuko dute. Kohatuko gazteek Pantxo eta Peio edo Hertzainak bezalako taldeen bertsoak taularatuko dituzte Plateruenean. Erika Uranga Plateruenerako kultur dinamizatzaileak dioenez, Kohatuko kideek gustura heldu diote erronkari. Gainera, iazko edizioako abestien zerrenda moldatu egin dute euren estilora hobeto egokitzeko.

Euskal Herri osotik

Ikasle Egunagaz 350 ikaslek egingo dute bat Plateruenean. Balmaseda, Portugalete, Bilbo, Zumaia, Zumarra, Azpeitia, Audio eta Duranatik etorriko dira. DBH 3. eta 4. mailako ikas-

leez gainera, batxilergoek ere parte hartuko dute euskal kantagintza tradizionala belaraldi berriei ezagutarazteko ekimenean.

Kontzertu ugari

Bidehuts ekoiztetzeko taldeek kontzertu berezia eskainiko dute, gaur, Plateruenean. Jupiter Jon, Sacco, Anari, Irazoki eta Lagunak, Audience eta beste

Esne Beltza taldeak labetik atera berri duen 'Esna' diskoa aurkeztuko du Plateruenean

hainbat talde iragarri dituzte kontzerturako. Goizaldeko 03:00etan berriz, Iparralde inde-elektro eszenaren bultzatzaile diren Moi Moi kolektiboko DJei emango diete lekukoa.

Elektro-folk doinuak

Nahia Zubeldia eta Manu Matthisek 2014an sortu zuten

Lumi elektro-folk taldeak kontzertua eskainiko du abenduaren 5ean, zapatuan, eguerdiko 14:00etan. Hainbat kontzerturen ondoren, Durangoko Azoka bisitatuko dute. Gauean berriz, musika erregistroa guztiz aldatuta, Durangaldeko Iheskide taldeak beteko du Plateruenerako oholza.

Egitarauan aurrera eginez, Olatz Zugazti abeslari eta arpa jotzailea izango da astelehenean antzokian joko duen hurrengo musikaria. *Ur goiena, ur barrena* diskoa aurkeztera etorriko da abeslaria azokara.

Esne Beltza taldeak ere labetik atera berri duen diskoa zuzenean aurkeztuko du Durangoko antzokian. *Esna* diskoaren inguruko kontzertuaren aurre-salmenta oso ondo doala zaldu du Urangak.

Amaitzeko, Korrontzi folk talde mungiarrek biribilduko du Plateruena kafe antzokiak azokarako prestatu duen egitaraua. Abenduaren 8an, 20:15ean emango du kontzertua Korrontzik.



Anarik urrian ere kontzertua eskaini zuen Durangoko txosna gunean.



Korrontzik folk ukitua emango dio azokari.

PLATERUENA EGITARAUA

ABENDUAK 4, BARIKUA

11:00 Kohatu. Euskal kantagintza. Ikasleentzako saioa.

22:30 Jupiter Jon, Sacco, Anari, Irazoki & lagunak, Audience, Nire eta Bidehutsen beste zenbait piztia. Sarrera 10€.

03:00 Moi Moi Kolektibo DJ saioa. EKEn laguntzarekin.

ABENDUAK 5, ZAPATUA

23:00 Iheskide. Sarrera 5€.

ABENDUAK 6, DOMEKA

22:30 Olatz Zugazti. Sarrera 10-12€.

ABENDUAK 7, ASTELEHENA

23:00 Esne Beltza. Sarrera 8-10€.

ABENDUAK 8, ASTEARTEA

20:15 Korrontzi (sarrera doan).

SARRERAK SALGAI

www.plateruena.eus

Txarteldegian 17.00-19.00 eta kontzertua hasi baino ordu erdi lehenago.

Lekuan lekuko egutegia

Durangoko Azokan eta ohiko saltokietan salgai

ABADIÑO Petis / Abarkateruena
ATXONDO Hiesko Atxondo
BERRIZ Fonda
DURANGO Plateruena / Mitx Liburuetan
ELORRIO Hargi

GARAI Herriko Taberna
IURRETA Urki / Anbot
IZURTZA Herriko Taberna
MALLABIA Basido Taberna
MAÑARIA Errekanda

OTXANDIO Danonua Taberna
ZALDIBAR Imandua
ZORNOTZA Agardel gaito-danda

2016
Durangaldeko egutegia

2016
anbot

anbot

Anboto
Komunikabideak

@anbot

www.anboto.org

Iheskide | Xagu, Kata, Tronpi eta Ibaiko | Durangaldea

“Zapaldueri elkartasuna erakustea da gure asmoa”

‘Garaitu ez gaituztelako’ diskoa aurkeztuko du Iheskidek zapatuan, Plateruenean, 23:00etatik aurrera

> MUSIKA Markel Onaindia
Zapatuko kontzerturako entseatzeko topatu ditugu Iheskideko kideak, Elorrioren. Bateria gogor, gitarran bizi eta ahotsean borrokalari. Mauka etxearen standean topatu ahal da euren lan berria.

Pozik zaudete disko berriagaz?
Xagu: Emaitza oso ona dela uste dut. Gutxi gorabehera betiko berdina egitea gura genuen, baina eboluzio apur batez. Eboluzio hori disko batetik bestera igarri dugu, baina betiko esentzia mantenduta.

‘Garaitu ez gaituztelako’ izenburua ipini diozue diskoari. Zergatik?
Xagu: Oraindik bizirik gaudela esateko; asko dago borrokatzeko eta egiteko, eta hemen ezer ez da galdu. Aurrera beti, egurra ematen!

Abesti bat Portalekua taberna-ri eskaini diozue.

Kata: Askok egoten gara Portalekuan, eta gurea ere badela sentitzen dugu laurok. Herrikoen inguruko egoera zelan zegoen ikusita, kantu hori egitea erabaki genuen. Talde moduan eta maila pertsonalean eskaintzen diogu Portalekuari.

Kartzela ere oso presente dago diskoan, ezta?

Tronpi: Egunerokotasunean bizi dugun errealitate gordina da, eta kantuak hori salatzen ari gara. Espetxetik elkarlan bat mantendu dugu Jurdan Martitegigaz, eta beti letraren bat egin izan du ekarpen lez. Oraingoan bere kide Aitzol Iriondo ere animatu da. Euren ahotza kaleratzeko aukera ematen diegu horrela.

Xagu: Aparte, *Ezerezaren espetxea* abestia ere egin dugu.

Momentu honetan oraindik eta garrantzitsuagoa da presoen gaia, hor baitabilza egur gehien ematen.

Tronpi: Orokorrean espetxe politikaren aurkako abestia da, baina bereziki Andoni Zengotitabengoaren egoera latza azaldu.

“*Gure asmoa disko berria aurkeztea da, baina kontzientzia gara oraindik fresko dagoela, eta kantu zaharrak ere joko ditugu*”

ratu gura izan dugu [Portugaleko segurtasun handiko kartzelan dago preso, bakartuta].

Abesti horretan Anestesia taldeko Ibon Esteibarrek kolaboratu du. Luxua, ezta?

Tronpi: Oso tipo jatorra da. Ideia kontatu genion eta bera ere oso pozik agertu zen. Denok sustatu gintuen orroa batzuk bota zituen [barrez], ikaragarria da.

Bestalde, munduko errefuxiatuek akordatu zarete ‘Samia’ kantuan.

Xagu: Letra idatzi genuenean Lampedusako kostaldera [Italia] errefuxiatuen uholdea heltzen zebilen. Gero mundu osora hedatu zen. Zapaldueri elkartasuna erakustea da gure asmoa.

Tronpi: Beti izan gara beste herrialde batzuen arazoak transmititzekoak. Palestina, Kolonia...

‘Zu barik’ eta ‘Aurkitu zaitut’ lako kantuak datozkit burura. Disko berrian ez al da falta horrelako maitasun kanturik?

Tronpi: Baina *Izan ginena* abestiari, adibidez, bakoitzak bere interpretazioa topatu ahal dio. Zerbait edo norbait faltan botatzeaz lotutako letra bat eskatu genion pertsona bati, eta askok maitasunetik interpretatu dute.

Gazte ugariren artean arrakasta daukazue. Musika gazteekiko konpromiso moduan hartzen duzue?

Xagu: Askotan inkontzienteki ere bai, baina kantu asko egiten ditugu gazteek entzungo dituzte la pentsatuz.

Tronpi: Beti esan dugu musikaren bitartez gure aldarriak zabaltzea dela gure helburua.

Zapatuan duzue aurkezpena. Zelakoa izango da?

Tronpi: Gure asmoa disko berria aurkeztea da, baina kontzientzia gara oraindik fresko dagoela, eta kantu zaharrak ere joko ditugu. Kontzertu beroa izatea espero dugu.

Ibaiko: Jendea animatu dadila zapatuko kontzertura!

Bizkarra
jatetxea

Ez daukazu janaria prestatzeko gogorik?
Guk lagunduko dizugu

Etxera eroateko janaria, betikoa, etxeakoaren modukoa

Urkiola auzoa, 4-6 ABADIÑO · Tel.: 946 812 026

Olatz Zugasti | Hernani (Gipuzkoa), 1965 | 'Ur goiena, ur barrena' disko berria aurkeztuko du

“Nire inflexio-gune bat islatzen du bosgarren disko honek”

Musikari laukoteak lagunduta joko du Olatz Zugastik, domekan, Plateruenean



> MUSIKA Itsaso Esteban

Ur goiena, ur barrena bosgarren diskoa aurkeztuko dute Olatz Zugasti musikariak eta bere laukoteak, abenduaren 6an, 22:30ean, Durangoko Plateruenean. Bosgarren honekin eman du Zugastik bere disko bat zuzeneko bira baten aurkezteko pausua, lehenengoz. Hamarkadak daramatza Benito Lertxundiren taldekide izaten. Azaldu duenez, orain arte Lertxundi laguntzen eta beste lan batzutan gustora ibili delako, “asetuta” sentitu delako, ez du pausua eman orain arte.

Olatz Zugastiren ahotsa eta bere arparen doinua izango dira Durangoko domekako emanaldiaren ardatza, baina baxuak, gitarrak, bateriak, teklatuak eta eskusoinuak lagunduta jardungo du. Taldekide gazteekin dihardu zuzeneko proiektu honetan Zugastik: “Pop-rock mundutik da-

toz, eta eurek ipintzen diote kontzertuari oinarria. Emanaldiko elementu zentrala nire arparen doinua den arren, solteago ibiltzeko aukera ematen dit taldekideekin jarduteak”.

Ur goiena, ur barrena diskoko kantak zuzenean emateko pentsatuak direla, eta “grabatu ere ideia horrekin grabatu” zituztela azaldu du Zugastik: “Nire inflexio-gune bat islatzen du bosgarren disko honek, orain arte eman ez dudana pausu horren inguruan datorrena: zuzenekoan ukitu horrekin datorrena”.

Ur goiena, ur barrena diskoaren izenburuak Zugastik aspaldiko urteetan eskuartean izan duen *Izotzetan, elurretan* kanta tradizionalari egiten dio erreferentzia. Azaldu duenez, Urdiainen (Nafarroa) jasotako erronda kanta bat da, oso gustokoa duena: “Urteari ongi-etorria emateko etxez etxe kantatzen dute: ura du ardatz, eta irudi oso iradokitzaileak ditu”.

Pako Aristiren *Urari ostutako poemak* liburuko poema bategaz egindako letra kenduta, diskoko gainontzekoak Zugastik idatzitakoak dira. “Bizitza bera”,

“Elementu zentrala arpa da, baina taldekideekin jarduteak solteago ibiltzeko aukera ematen dit”

idazlearen barne mundua, zein herria dute berbagai kantek. Euskal Herriko arazo nazionalari buruzko “diskurtso ez-koherenteek eta berbontzikeriak nazkatuta” daukatela dio musikari hernaniarrak, eta beharra sentitu duela hortaz kantatzeko.

“Herri menderatu bezala, egotea tokatzen zaigun tokian behar genuke egon, eta ez gauden bezala, menderatzailearen joko-araueetan guztiz murgilduta”, dio Olatz Zugastik. Ideia hori defendatzen du bere letretan ere. “Urte askotan basamortu bat izan dugu, eta hau bezalako analisiak egin dituen jendeak ez du lidergo bat garatu”, dio. Hori ere aldatzen hasi dela uste du.

150 URTE

Etorkizuna eraikitzen

**DURANGOGAZ KONPROMETITUTA
ALENANA/FRANTSESA/INGELESA
METODOLOGIA BERRITZAILEAK
FAMILIENGANDIK GERTU
INSTALAZIO BERRIAK
DIRU LAGUNTZAK**

**San Antonio Ikastetxea
Irakasleon Kooperatiba**

0
1
2
3
4
5
6
7
8
9
10
11
12
13
14
15
16 urte



DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOA

Astola auzoa, 26.
Abadiño, 48220.

Tel.: 946 818 116
mdurango@bizkaia.org
www.mdurango.org

GIZARTE ZERBITZUAK

- Oinarrizko gizarte zerbitzuak
- Etxez etxeko laguntza
- Tratu txarrak jasan dituzten emakumeei arreta psikologikoa eta juridikoa
- Pertsona nagusien dinamizazio zerbitzua
- Adikzioen prebentzio zerbitzua
- Gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua haur, gazte eta familientzat.

TOKI GARAPENA

HIRI HONDAKIN SOLIDOEN BILKETA

KIROLA

- Atletismo pista
- Trinketa
- Belodromoa

EUSKARA

KULTURA

KONTSUMITZAILEAREN INFORMAZIO BULEGOA

Artisauen Euskal Denda, 20 urtez “zerbait desberdina” eskaintzen

Bernat Vidal: “Desberdina, eksklusiboa, kalitatezkoa, bertakoa, pertsonala... Horrelakoa da artisauen lana”



> ARTISAUTZA M. Onaindia
50 urte dira Durangoko Azoka lehenengo ospatu zenetik, baina efemeride hori ez da aurtengo bakarria izango. Izan ere, artisauen Euskal Dendak 20 urte daramatza “zerbait desberdina” eskaintzen, Bernat Vidal Arbaso artisauen elkarteko ordezkariaren berbak hartuta. “Desberdina, eksklusiboa, kalitatezkoa, bertakoa, pertsonala... Horrelakoa da artisauaren lana”. Gaurtik martitzenera bitartean, Euskal Herriko artisauen bilgune bihurtuko da merkatu plaza.

“Anaia txikia”

Lehenengo liburu eta diskoen azokaren arrakastapean jaio zen Euskal Denda, 1996an. “Anaia txikia gara”, adierazi zuen Vidalek aurkezpenean. Artisauen azokak ere jendetza batu izan du ordutik, eta kultur giroa Durangora hedatzen lagundu zuen gainera. Aitziber Irigoras alkateak artisauen lana eta ekarpena nabarmendu zituen aurkezpe-

nean: “Durango euskal kulturaren hiriburu bilakatzen da abenduko zubian, eta hori, Euskal Dendari esker ere bada”. 20 urteotan guztia ez da erraza izan, Vidalek gogoratu zuenez: “Urte batzuk zailak izan dira ekonomikoki”. Edozelan ere, Vidalen ustez, merkatuko azokak bizirik iraun du urteotan, eta “jendeak erakutsitako elkartasuna” ikusten du horren oinarrian.

Modak aldatzen

Vidalen esanetan, urterik urte modak eta egoerak aldatzen joan dira. Adibidez, krisi ekonomikoaren eraginez, ehungintzako artisauak ugaritu direla dio: “Harrituta nago, asko hazi da eta ofizioa”. Batez ere, 35-40 adin tarteko emakumeak izan ohi dira ehungintzan murgiltzen direnak. Aurtengo nobedadeen artean, motxilak eta umeen arropa egiten dituen emakume artisau bat egongo da.

Durangaldetik, 6 postu

Zelan ez, aurtengoa ere ez da faltako

1996an
jaio zen Euskal Denda,
lehenengo liburu eta disko
azoka haren arrakastapean

6
postu egongo dira
Durangaldekoak.
Bi berriak izango dira

35-40
adin tarteko emakumeak
izan ohi dira ehungintzan
murgiltzen direnak

Durangaldeko artisaurik Euskal Dendan. Guztira sei postu egongo dira Durangaldetik sortutakoak. Horietatik bi berriak izango dira gainera: zeramika lantzen duen Rosa Etxaberena eta Artezi tapizeriarena, Norone Bizkarra eta Iratxe Artiach durangarrek Eibarren duten lantokia. Eurez gainera, Bea Unzueta zuntz begetalekin, Eneko Unzalu bitxiekin eta Anitha Mol paperagaz eta kartoiagaz egongo dira, baita Durangoko Restaurarte etxeok ere.

Artetsu sariak

Gaur bertan, abenduak 4, Arbasa elkarteak antolatzen duen Artetsu sariaren gala ospatuko da merkatu plazan. 19:30ean hasiko da ekitaldia, eta hainbat lagun eta erakunde sarituko dituzte. Bizitza osoko dedikazioagatik, Elena Txintxurreta buzingileak, Jose Ramón Salmantón otzaragileak eta Alicia Bengoetxea espartingileak jasoko dute saria. Bestelako errekonozimenduen artean, euskararen ingu-

ruko sarian, Euskal Herriko Euskaraz erakundeak omenduko dute. Sariak emateaz gainera, Euskal Dendaren 20. edizioa ospatzeko aprobetxatuko dute gala hori.

Kukuxumusuren kartela

Kukuxumusu etxeak diseinatu du aurtengo kartela. Duela hogeitaz edizio ere euren landu zuten lehenengo irudia, eta horregatik, iruindarregana jo dute berriro Euskal Dendakoek.

Lanbide zaharrek edukitako garapena islatzen da kartelean, eta lan horren balioa indartu gura dute modu horretan. Hain zuzen ere, *Ezina ekinez egina* esaldi ezaguna da aurtengo lema. Urte guzti hauetako karteletan, erakusketa ipiniko dute merkatu plazako atarian.

Martxan da produktu desberdinak eskaintzen dituen artisauen azoka. Aukera ezin hobea izango da Euskal Herriko lanbideak ezagutu eta artisauak euren eskuarekin egindako lanak erosteko.

ORDUTEGIA

Irekita: Abenduaren 4tik 8ra.
Goizetan: 11:00etatik 14:30era.
Arratsaldetan: 16:30etik 21:00etara.
Martitzena: 20:00ak arte.

Inaugurazioa: Abenduaren 4an, 12:00etan.

SALTOKIAK

Bizkaitik: 21 - **Durangaldetik:** 6
Gipuzkoatik: 15
Nafarroatik: 4
Arabatik: 5
Lapurditik: 1

SEKTOREKA

Zeramika: 6
Ehungintza: 5
Nekazaritza: 7
Egurra: 7
Bitxingintza: 7
Larrua: 5
Gainerakoak: 12

Artetsu saria:

Abenduaren 4an, 19:30ean, merkatu plazan

20
EUSKAL DENDA

Abendua 4 - 8 Diciembre
Durangoko Azoka Plazan
2015

www.euskaldenda.info

facebook.com/arbasa



GURE ARTISAUTZAREKIN DUGUN ZITA!


- Erakustaldiak. Umeentzako tailerrak
- Erosketa-baleak zozketatuko ditugu, 2.000 euro guztira.
- Sorpresa asko izan ditzakezu.

Ezina Ekinez Egina

Ordutegia: 11:00 - 14:30 / 16:30 - 21:00



SUKALDEAK ETA ETXEKO ALTZARIAK



Murueta auzoa, 17B lokala
Eroski saltoki-gunea - ABADIÑO
Tel.: 946 526 195
info@schmitd-abadiano.com

SCHMIDT

Norone Bizkarra (1987, Abadiño) / Iratxe Artiach (1987, Durango) | Tapizeria denda dute Eibarren: www.artezikoop.com

“Ofizio honetan, tapizerian, egun bakoitza erronka bat da; egunero ari gara ikasten”

Eibarren desagertzear zegoen tapizeria denda bateko erreleboa hartu dute; Euskal Dendan izango dute euren postua



> ARTISAUTZA J.Derteano ‘Zaharkitua dagoena, zaharberritu. Gustuko ez duguna, gustuko bilakatu. Konpontzeko dagoena, konpondu’. Mezu horrekin egiten diete ongietorria Norone Bizkarrak eta Iratxe Artiachek Artezi proiektuko webgunean sartzen direnei, eta mezu horrek euren proposamena ederto laburbiltzen du. Eibarren 40 urteko tradizioa zuen tapizeria denda baten kargu egin dira, aurreko jabearen oinordekotza hartuta.

Zelan sortu zaizue Eibarko tapizeria dendan aritzeko aukera?

Norone Bizkarra: Kasualitatez ezagutu genuen Eibarko azken tapizgilea, orain urte eta erdi pasatxo. 40 urtez aritu da tapizeria denda honetan eta jubilatuta dago. Guri ofizioa erakustea eta dendagaz geuk aurrera jarraitzea proposatu genion. Bera poz

-pozik jarri zen ez zuelako oinordekorik. Egia esanda, lagun egin gara eta asko animatzen gaitu.

Bere ikasleak izan zineten hilebete batzutan.

Iratxe Artiach: Hiru bat hiletan egon ginen beragaz ikasten. Guk barne diseinua eta altzarigintza ikasketak eginak ditugu. Mundu horretan ibili izan gara altzariak eta saltzen, baina ez ziren geuk sortutakoak. Eskulanetan badugu abilezia, eta horrek animatu gintuen.

N.B.: Oinarriak irakatsi dizkigu. Baina ofizio honetan egun bakoitza erronka bat da. Pieza bakoitza desberdina da eta egunero egunero ari zara ikasten.

Urte eta erdi daramazue. Denbora honetan zerk harritu zaituzte gehien?

N.B.: Uste genuena baino mundu zabalagoa dela. Etxeko aulkiak, sofak... horrelako gauza kon-

kretuetara mugatuta egongo zela uste genuen, baina ez da horrela. Mundua erabat zabaldu zaigu. Askotariko gauzak tapizatu daitezke: dentisten aulkiak, motorretako eserlekuak, esku-oheak... denetik.

I.A.: Konturatu gara oihalez estalita dagoen dena dela gure eremua.

Denbora honetan eskaera bitxiak ere izango zenituzten.

I.A.: Aurrekontu eske jaso dugun proposamen bitxiena tronboi baten fundarena izan da. Fundak 60 urte zituen. eta barrutik eta kanpotik berritu gura zuen.

N.B.: Itsasontzietako eserleku dezentegaz ere jardun dugu.

I.A.: Azken baten, tapizeria lana diogunean ez gabilta kanpoaldeko itxurari buruz bakarrik. Zaharberritze lana izaten da. Pieza bakoitzak barrualdetik bere egitura izaten du, eta hori berritzeko ardura ere gure gain hartzen dugu.

Oraindik aukerarik izan ez duzuen zer tapizeria lan egitea gustatuko litzaizueke?

N.B.: Bakarra den pieza klasikoaren bat.

I.A.: Neurriak hartzera edo piezak jasotzera etxeetara joaten garenean, berehala joaten zaigu begia gauza klasikoetara. Behar bada klasikotik modernotasunerako bide hori interesatzen zaigulako da: pieza klasikoa gaur eguneko oihal konbinazioetara ekartzea.

N.B.: Oihalen konbinazioa asko gustatzen zaigu. Ez dadila kolore bakarrekoa edo monotonoa izan. Kolore alaiak ere gustatzen zaizkigu, bizitasuna emateko.

Bezeroek dena erabakita duten lanak eta sortzeko askatasuna uzten dizkizuetenak: Zein lan mota duzue gustukoago?

I.A.: Askatasuna uzten digutenak.

N.B.: Egia esanda, bezero askok uzten du sormena gure eskuetan, eta aholku bila ere etortzen dira.

I.A.: Beste batzuk, ideia zehatz batez etorri arren, azkenean gure proposamena onartzen dute. Jendea proposamenak entzuteko prest egoten da normalean.

N.B.: Tapizgintzak eta artisautzak eskaintzen duen aukera bat horixe da; nahi dena egiteko aukera dagoela. Berria erosiz gero ez dago horretarako aukerarik. Bezeroei berezitasun hori azpimarratzen saiatzen gara, eta zerbait pertsonala eta desberdina egitera animatzen ditugu.

Bezeroari zuen lana erakusten diozuen unean, gustatuko ote zaion ala ez urduritasun hori sentitzen duzue?

N.B.: Ideia batekin etorri eta azkenean gure proposamena onartu badu, orduan bai, urdu-

ritasun puntua egoten da alde bien partetik. Baina normalean erreakzio onak eta positiboak jaso izan ditugu. Hori guretzako aberasgarria zein pozgarria da eta egiten dugun lanean segurtasuna ematen digu.

“Bezero askok uzten du sormena gure eskuetan, eta aholku bila ere etortzen dira”

Demagun sofa zahar bat botatzen aurkitzen nauzuela berri bat erostera almazen handi batera joan aurretik. Zer esango zenidakete iritzi aldatzeko?

N.B.: Sofaren egitura ondo baldin badago, gurea erosi-bota kontsumismo eredu horretatik irteteko modu egokia dela esango genizuke. Berrerabilpenaren ideia sustatzen saiatzen gara. Gainera, berri bat erostera bazoaz, ezin duzu zuk zeuk ezer erabaki. Dagoena erosi behar duzu. Guk aukerak eskaintzen ditugu, bezeroek beren gustuak islatzeko aukera izan dezaten. Pieza bakarra, eksklusiboa izango du.

Zuen lanak Euskal Dendan erakutsiko dituzue lehenengoz.

N.B.: Bertaratzen direnen artean gure lana, lan egiteko modua eta eskaintza zabalatzeko aukera izango dugu. Horrekin batera, Kuxart proiektuko kuxinak ere erakutsiko ditugu. Egitasmo horretan, 15 diseinu atera ditugu beste kide batzuekin elkarlanean. Euskarazko mezuak dituzte, denak positiboak. Sentitzeko eta sentiarazteko kuxinak izan daitezen gura dugu.



Beristain
NEKAZAL TRESNAK

Nekazal, baserri, baso,
lorazaintza edota eraikuntzarako
tresnen salmenta, konponketa
eta mantenua.

OIDOR BERRIOZABALBEITIA, 14 48230 ELORRIO BIZKAIA

☎ 946 231 803 ✉ info@beristain.eus

www.beristain.eus





Otra mecánica es posible

Box alokairua

Bestelako mekanika bat posible da



Erraz, denbora eta dirua aurreztuz

Tailer mekanikoa ulertzeko modu berri bat, ibilgailua zeuk konpondu ahal izan dezazun. Gidariekin eta erabiltzaileek prezio onean euren ibilgailua konpontzeko gunea, zain egon gabe eta dirutzanik xahutu gabe, bakoitzak behar dituen ordezko piezak ekarri edo bertan eskuratu ditzake eta.



Zure eskura jarriko dugun tailer batean

Makina arloan azkeneko teknologia zure esku, eta RTVk behar duten bezero guztiei eskaintzen dien doako aholkularitza ere bai. Gainera, ordezko piezen denda ere badugu, behar duzun guztia eskuratzeko.



Aste osoan (astelehenetik igandera)

Bezeroen beharren arabera egokituta, RTVk ordutegi malgua du, astelehenetik igandera, 09:30etik 21:30era dituzte zabalik ateak, bakoitzak aukeratu dezan bere ibilgailua zaintzeko ondoen datorkion unea.

Erreserbatu zure boxa
Eman izena trebakuntza
ikastaroetan!

azkar!

Olio eta iragazkia aldatzea

24€
-tik
hasita

Errekuntza-tokia eta
haizearen iragazkia aldatzea

44€
-tik
hasita

info@reparatuvehiculo.com
www.reparatuvehiculo.com



RTV Iurreta
Durango-Bilbo N-634 errepidea, 82 km
UEI-3 poligonoa, 5 zk. behealdea
48215 Iurreta
Tel.: 946 817 914

RTV Basauri
Bilbondo ZK Artunduaga
Bastegi kalea 1A
48970 Basauri
Tel.: 944 008 760

RTV Barakaldo
Max Center ZK
Karega kalea, 35 3A
48903 Barakaldo
Tel.: 944 904 728

Kabi@, oraindik garatzeko “aukera piloa” duen erakusleiho digitala

Leku berria du Kabi@k aurten; Landako Gunetik kanpo egongo den arren sarbidea izango du bertatik

> **KABI@** Aitziber Basauri
Azken urteetan izandako nahia egia bihurtu dute: Kabi@k leku berria du aurten, Durangoko Azokan; kabia itxurakoa. Landako Gunetik kanpo egongo den domo baten izango du tokia kultura digitalaren topalekuak; hala ere, sarbidea izango du Landako Gunetik bertatik. Horixe du nobedade nagusia, aurten, Kabi@ gunea.

“Deigarria den zerbait, esperimentala, egitea izan da helburua. Kabi@ gunea ere bada apur bat esperimentala, eta espazio berri hau esperimentu bat ere bada”. Horrela azaldu du Kabi@ko arduradun Gorka Juliok. Guneari ikusgarritasun handiagoa emango diola uste du berak: “Hala ere, ikusteko dago nola doan dena, zelako harrera duen”.

Bisitariak erakarri guran

Kabi@ra bisitari gehiago hurbiltzea gura lukete bertako arduradunek. “Horretara dator aurten izango dugun espazio berri hau ere. Kabi@ garatzeko aukera piloa duen gunea delakoan gaude. Izan ere, produktu digitalak gero eta gehiago dira, eta izango dira”, gogoratu gura

izan du Juliok. Kabi@k garapena izango duenaren uste osoa dauka berak.

Mundu digitalagaz lotutako talde eragile “piloa” dagoela ikusi dute Kabi@ko arduradunek eta lekua eskaini gura diote kultura digitalaren erakusleiho ere baden Durangoko Azokan. Juliok gaineratu duenez, “ko-

20
minutuko tartean IKTei buruz aritzeko aukera, Tabu hitzaldien eskutik

munitate euskaldun oso aktiboa dago momentu hontan sarean, eta, horiei esker, euskara oso ondo kokatuta dago bertan”.

Komunitateei lekua emanez

Kabi@k komunitateei eman gura die tokia orohar, Juliok nabarmendu duenez. Jarduerak garatzeko aukera izan dezaten tailerrak antolatuko dira goizetan, “euskal komunitateei beraien proposamenak txertatzeko aukera emateko”. Besteak beste, *Code.org* plataformaren



Kabi@ko arduradun Gorka Juliok uste du espazio berriak guneari ikusgarritasun handiagoa emango diola.

hastapenei eta irrati teknologiei buruzko tailerrak antolatu dituzte; baita bideo-jokoen euskal komunitatearen topaketa eta wikilari euskaldunen bilkura irekia ere. Arratsaldetan, berriz, espazio irekia sortuko da, bisitariak hurbildu daitezten. “Errobotika eskola, bideo-jokoak euskaraz, txalaparta digitala...gauza interesgarriak eza-gutzeko aukera eskainiko zaie bisitariei”, argitu du.

Hitzaldiekin bukatuko dituzte Kabi@n gaika antolatutako egunak: Gazteak, Jokoak, Sortzaileak, Komunikazioa eta Komunitateak.

Espazio irekia izan guran

“Kabi@k ez du espazio itxi edo mugatua izan gura, eta ez du izan behar”, halaxe nabarmendu du Juliok. Bere berbetan,

“egunero erabiltzen ditugu teknologiak eta datozen egunotan jorratuko diren gaiak oso interesgarriak izango dira. Arratsaldeko hitzaldiak oso dibulgatzaileak eta interesgarriak izango dira”. Horien artean daude abenduaren 5ean eta 6an, hurrenez hurren, eskainiko dituzte hitzaldi biak: *Mitzuli: euskara sakelekoan* eta *H28 hilabetekari satiriko digitala*.

Hedabideen etorkizunari buruz antolatutako mahaingurua ere nabarmendu du Juliok. Abenduaren 7an izango da eta bertan jardungo dute *Gaztezulo*, *Mugikaria*, *Argia*, *Berria* eta *Ahotsa.info*-ko ordezkariak.

Duela hiru urte hasi zituzten Tabu hitzaldiek ere harrera ona izaten dute. Joku moduan planteatzen dira, eta, Informazio eta Komunikazio Teknologiei (IKT)

buruz aritzeko 20 minutuko tar-teak eskaintzen dira. “Euskara hitza erabiltzea debekatuta dagoenez, proiektuari berari ematen zaio garrantzia, eta ez soilik euskaraz izateari”, dio Juliok.

“Komunitate euskaldun oso aktiboa dago sarean, eta horiei esker oso ondo dago kokatuta euskara”

“Kabi@k ez du espazio itxi edo mugatua izan gura, eta ez du izan behar”, dio Gorka Julio arduradunak

KABI@KO EGITARAUA

ABENDUAK 4, BARIKUA

GAZTE / HEZKUNTZA EGUNA

10:45 Code.org plataformaren hastapenak. Tailerra. Bi saio ikasleentzako.

15:30 Gazte eta hezkuntza proiektuak, aurkezpenak:

- Arotzeria Hiztegi Digitala, Laneki eta Arozgi.
- Laboratorium Museoa, Bergarako Udala.
- ... eta partaide gehiago.

18:30 Raspberry eta hezkuntza. UEU.

ABENDUAK 5, ZAPATUA

JOKOAK / EUSKARA EGUNA

10:30 Bideo-joko ekaitza. Bideojokoen euskal komunitatearen topaketa. Gamerauntsia.

15:30 Euskara ludikoa.

- Euskara teknologia eta jokoen aurkezpenak:
- ZuruMuru: Elezaharrak osatzeko jolasa, Flying Dodos.
 - Xuxen: 20 urte zuzentzaile-lanetan, Elhuyar eta IXA.
 - ... eta partaide gehiago.

18:30 Mitzuli: euskara sakelekoan.

ABENDUAK 6, DOMEKA

SORTZAILE / GARATZAILE EGUNA

10:30 Wikilari Euskaldunen Bilkura Irekia. Euskal wikilari taldea.

15:30 Sortzaile digitalak.

Internet edota teknologia berrien inguruan lanean ari diren esperientziak:

- Hiru Damatxo irudimentsu, Lander Arretxe, Unai Gaztelumendi eta Kepa Matxain.
- Txalaparta digitala, Enrike Hurtado eta Beñat Iturriotz.
- ... eta partaide gehiago.

18:30 H28 hilabetekari satiriko digitala.

ABENDUAK 7, ASTELEHENA

KOMUNIKAZIOA / HEDABIDEAK EGUNA

10:30 Irrati teknologiak.

Irrati estazio bat montatzeko software eta teknologien inguruko tailerrak. 97 Irratia, Tfan-Itakun irratia eta Larrabetzuko irratia.

15:30 Hedabideak eta sarea.

Euskarazko hedabideek sarera begira egindako esperientzien aurkezpenak:

- Gaztezulo: webgune berria, Aitor Abaroa.
- Mugikaria eta Sustatu, Luistxo Fernandez.
- Astekaria, Berria.
- 97 Irratia: Bilboaldeko irrati librea software librean.
- ... eta webgune berritzaile gehiago.

18:30 Mahaingurua: hedabideen etorkizuna.

Gidaria: Xabier Landabidea (97 Irratia)
Hizlariak: Aitor Abaroa (Gaztezulo), Luistxo Fernandez (Mugikaria) eta Argia/Berria/Ahotsa.info-ko ordezkariak.

ABENDUAK 8, ASTEARTEA

KOMUNITATE EGUNA

10:30 Tabu hitzaldiak

IKTei buruz aritzeko 20 minutuko tar-teak.
*Debekatua dago euskara hitza erabiltzea.

12:00 Igerrak Euskal Instagram komunitatearen topaketa eta #igerrak_50DA lehiaketaren sari banaketa.

· Etorri ikustera ·



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

lurretan, Durangon eta Elorrion aukera oso onak!



Durangoko herrigunean



*Energia-eraginkortasun
handiko etxebizitzak*



Hiriko txaletak



Oiz mendira begiratokiak




Leku zabalak

www.zarateyelexpe.com

Bixente Kapanaga, 19

lurreta - Bizkaia

946 816 673

 Zarate eta Elexpe Eragileak SL.



Zugaza zienman kokatuko dute Irudienea. Txelu Angoitia. Gerediaga elkarte.



Iazko irudienearen argazkia. Txelu Angoitia. gerediaga elkarte.

Goenkaleren azken hiru atalak proiektatuko dituzte Irudienean

Igandean, 19:00etan Zugazan telesailaren amaiera ezagutzeko aukera izango da

> IRUDIENEA Jone Guenetxea Aurtan ere Irudienea guneak euskarazko dokumental, film labur eta film luzeen emanaldiak eskainiko ditu. Baina ikus-entzunezkoen erakusleho ezetik, sortzaileak ikusleekin harremanetan jartzeko eta elkarrekin hausnartzeko plaza dela gogoratu du Arrate Illaro Irudieneako antolatzaileak. *Amama* filma, *Euskal Harriaren ABDak* edo *Pikadero* film luzeak proiektatu-

Amama, Euskal ABDak eta Pikadero proiektatuko dituzte, besteak beste, Zugaza zineman

ko dituzte, besteak beste, Durangoko Zugaza zineman. Aurtengo nobedadeetako bat *Goenkale* izango da. Hainbat urtez ETB1eko ikurra izan zen telesailaren

azken kapituluak emango dituzte igandean, 19:00etan. Ekitaldi horretara telesailean parte hartu duten hainbat aktore gonbidatuko dituzte.

Hainbat berbaldi

Gazteek euskaraz gaur egun jasotzen dituzten ikus-entzunezkoen transmititzen dituzten mezu sexisten inguruan jardungo du Katixa Agirre kazetariak Oihulari Klownen laguntzagaz.

Horrez gainera, euskal zine industriaren belaunaldi berrien inguruko mahai-ingurua antolatuko dute. Lara Izagirre zuzendaria, Joseba Usabiaga aktorea, Irune Gurtubai ekoizlea eta Miren Manias ikertzailea izango dira mahaiaren bueltan. *Zinea.eus*-eko kideek gidatuko dute solasaldia.

Loreak azokan

Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga zine zuzendariak ere Irudienea bisitatuko dute astelehenean, Loreak filmari buruz berba egiteko. Antolatzailerik diotenez, honela ziklo bati amaiera emango diote. Izan ere, bi zuzendariak Loreak aurkezten egon ziren proiektua oraindik gorpuztu gabeko ideia

zinean, pelikula eginda zegoenean ere azokan proiektatu zen eta, oraingo honetan, pelikularen ibilbideaz arituko dira.

Jon Garañok eta Jose Mari Goenagak Loreak filmaren inguruko berbaldi emango dute Irudienean

Film laburrak

Laburbirako bost filmez gainera, dantza gaitzat duten film laburrak proiektatuko dituzte Irudienean. Tartean Durangoko Bideografik ekoiztetxeak sortutako *Dantza Flokak* film laburra.

IRUDIENEAKO EGITARUA

ABENDUAK 4, BARIKUA

10:30 "Youtubeko gezurrak: sexismoa gazteei zuzendutako ikus-entzunezkoetan". Tailer-hitzaldia eta Klownklusioak. Katixa Agirre eta Oihulari Klown (hiru saio ikasleentzat).

10:30 Bikoizketa tailerra. Mixer eta Zineuskadi (lau saio ikasleentzat).

15:15 'Uda minean negua, 1936ko gerra Ordizian' (81'). Dokumentala. Ordiziako Memoria Historikoa Berreskuratze Taldeko kideek aurkeztuta.

16:30 'Itsasoari begira' (52'). Dokumentala. Lorea Perez de Albeniz zuzendariak eta Itsasoren familiak aurkeztuta.

17:30 'Maya erlea' (79'). Haurrentzako filma. Zinema Euskaraz.

19:00 'Hurak eta lapurrak' (90'). Haurrentzako filma. Zinema Euskaraz.

ABENDUAK 5, ZAPATUA

10:30 Kameratoia. Lehiaketaren aurkezpena.

12:00 "Youtubeko gezurrak: sexismoa gazteei zuzendutako ikus-entzunezkoetan" Katixa Agirrerren hitzaldia eta Klownklusioak (Oihulari Klown).

14:00 'Soka. Dantzari buruzko film laburrak'. Euskal Kultur Erakunde kideek eta film egileek aurkeztuta.

- 'Zergatik dantzatzun duzu?' (5'). Ateka Films.
- 'Margo dantza' (15'). Oskar Alegria.
- 'Jalgij' (12'). Aldudarrak Bideo.
- 'Dantza flokak' (5'). Bideografik.

15:00 'Euskaraz bizi nahi du' film laburren lehiaketako zenbait lanen proiektzioa. Kontseiluko Paul Bilbaok aurkeztuta.

- 'Gure historiak soinu desberdina izango luke' (4'30'). Gabriel Gil.
- 'Nire eguneroko hautua' (3'39"). Mattin Zeberio.
- 'Josuneren bidaia' (11'25"). Peru Galbete.
- 'Semeak' (7'30"). Iker Azkoitia.

16:00 'Belaunaldi berriak zinemagintzan'. EHUko ikasleen film laburren emanaldia.

19:00 'Amama'. Asier Altunaren filma.

ABENDUAK 6, DOMEKA

10:00 'Egunkariak 25 urte'. Dokumentala. Sortzaileek aurkeztuta.

12:00 'Euskal zine industriaren belaunaldi berria'. Mahai-ingurua: Lara Izagirre zuzendaria, Joseba Usabiaga aktorea, Irune Gurtubai ekoizlea eta Miren Manias ikertzailea. *Zinea.eus*-eko kideek gidatuta.

13:30 'Kortxoenea, irautea sortzea delako' (65'). Dokumentala. Kortxoenea Gaztetxe kideek aurkeztuta.

15:00 'Sukaldetik plazara, Ipar Euskal Herriko emakumeen askapen mugimendua' (45'). Dokumentala. Emagin eta Bilgune Feministako kideek aurkeztuta.

16:00 'Euskal Harriaren ABDak', 26 zuzendarik osatutako filma (126'). Sortzaileek aurkeztuta.

19:00 'Goenkale, azken bizipenak'. Oraingo eta aspaldiko zenbait aktoreekin, azken 3 kapituluak primizian.

ABENDUAK 7, ASTELEHENA

10:30 'Legión Condor, nazien bidegabekeria, iragana eta oraina' (23'). Dokumentala. Andrea Heuschmid eta Txarly Marqués kideek aurkeztuta.

11:00 LABURBIRA Film laburren emanaldia.

- 'Mezu bat hozkailuan' (18'). Erika Elizari.
- 'Atzeko Dantza' (9'). Maider Fernandez Iriarte.
- 'Erreplika' (14'). Iñigo Gaiton.

12:00 Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga 'Loreak' filmeko zuzendariak berriketaldia. Aitor Abaroa kazetariak bideratuta.

13:00 'Burbunak eta etsayak, Hernaniko natura eta ahozko ondareari tiraka' (60'). Dokumentala. Aranzadi zientzia elkarte eta Dobera euskara elkarte kideek aurkeztuta.

14:30 LABURBIRA Film laburren emanaldia.

- 'Brunilda' (12'50"). Eriz Alberdi.
- 'Hitzen lotura' (5'). Irati Cano.
- 'Igande bateko proposamena' (10'40"). Ruben Rosas.
- 'Maddi eta Patxi' (11'). Arrate Fernandez Itxaso.
- 'Abiadura' (4'40"). Sonia Esteve.

15:30 'Gure kabuz ala hil' (90'). Dokumentala. Lander Arretxea, Eneritz Arzallus, Xalba Ramirez, Iraitz Salegi, Onintza Rojas eta Itsaso Zubiria. Kideek aurkeztuta.

17:30 'Gure sor lekuaren bila. Euskarazko lehen filmaren bilaketa' (75'). Dokumentala. Josu Martinez zuzendariak aurkeztuta.

19:00 Pikadero (98'). Ben Sharrocken filma. Aktoreek aurkeztuta.

ABENDUAK 7, ASTEARTEA

10:30 'Jon Salaberri, hiesdunen aldeko ekintzaile ahaztua' (50'). Dokumentala. Goiena Telebistako kideek aurkeztuta.

12:00 'Beltzean mintzo' (50'). Dokumentala. Garabide elkarte kideek aurkeztuta.

13:30 'Bisaiak: jauziaren aurpegia' (56'). Dokumentala. Ibai Agirrebarrena zuzendariak aurkeztuta.

Mosaikoa egingo dute Ibilaldia 2016ren mezua zabaldu guran

Ibilaldia 2016ko egitaraua Durangoko Azokan egingo duten mosaiko erraldoiagaz abiatuko dute. Gaur 16:00etan jarri dute hitzordua Landako Gunean

> IBILALDIA M.O./J.G.

Dagigun! da 2016ko Ibilaldiaren leloa. Egin dezagun! Egin dagigun! goiburu ekintzaileagaz dator, beraz, Durangoko Ibilaldia. Baina, Ibilaldia egun bateko jaija baino askoz gehiago da. Horregatik, Durangoko Ibaizabal eta Kurutzia ikastoletako langile, ikasle eta gurasoek hilabeteak daramatzate lanean. Urte osoko programazioaren barruan, Durangoko Azoka jarri dute abiapuntu. Horrela, gaur, Durangoko Azokaren lehenengo

“Batasun irudiagaz” aurkeztu dute 2016ko Ibilaldia Durangoko Udalean

egunean, mosaiko erraldoia antolatu gura dute. Arratsaldeko 15:30ean hasita, bi ikastoletako irakasle, guraso eta ikasleak kalejiran joango dira Durangoko kaleetatik zehar. 16:00etarako

Landako Gunera heltzea da amoa, ordu horretan jarri baitute mosaikoa osatzeko hitzordua. Antolatzaileek deialdi zabala egin dute ekitaldian parte hartzeko.

Mosaiko erraldoia

Mosaikoa antolatzeak badu bere zailtasuna. Beraz, antolakuntza elkarlanaren emaitza izan dela nabarmendu dute ikastolako ordezkariak. Markel Larruskain Ibilaldia 2016ko koordinatzaileak azaldu duenez, lehenengo guraso batek alde teknikoaren ardura hartu zuen. Ondoren, talde batek kartulina horiek zenbatu zituen. Bestalde, ikasle ohiez osatutako talde batek mosaikoaren ondoan jartzeko pankarta diseinatu du. Baina, alde teknikoaz gainera, giza baliabideen trebakuntza ere garrantzitsua da mosaikoa egiteko momentuan akatsik sortu ez dadin. Horretarako, irakasle batek DBHko ikasleekin jolas-orduetan entseguak egiteko ardura hartu du.

Batasun instituzionala

Asteartean aurkeztu zuten 2016ko Ibilaldia Durangoko Udalean. Aitziber Irigoras alkatetik bozeramaileen batzordean adostutako berbak helarazi zituen ekitaldian: “Batasun irudi honegaz proiektuaren sendotasuna eta lankidetzaren islatu gura ditugu”. Alderdi guztietako ordezkarien aniztasuna ere nabarmendu zuen, eta ikastolek ere ezaugarri hori dutela esan zuen: “Durango anitza da, eta aniztasun horrek aberastasuna ematen dio herriari”.

Udalaren babesa eta partaide-tza eskertu zituen Idurre Maortua Ibaizabaleko zuzendariak: “Ezinbestekoa dugu parte-hartzea, eta hori sustatu gura dugu gainera; Ibilaldia parte-hartzea da”. *Dagigun!* lemagaz, “ekintzarako eta konpromisorako deia” egin gura dute. Gainera, ikastolen sorreratik egondako konpromisoa azpimarratu zuen Maortuak. “Aitzindaritzaren pedagogikoari eusteko konpromisoa daukagu”, berretsi zuen.



Mosaikoa osatzeko entseguak egin dituzte Kurutziajan.



Udaleko alderdi guztiek babestu dute 2016ko Durangoko Ibilaldia.

Txistu eta akordeoi soinua azokan

> KONTZERTUA J. Guenetxea

Duela urte batzutatik hona Silboberri elkarteak txistu kontzertua antolatzen du Azokako egunetan. Aurtengorako, abenduaren 5ean, zapatuan jarri dute hitzordua; 19:30ean, San Frantzisko elizan.

Antolatzaileek azaldu dutenez, kontzertuaren lehenengo zatian, txistua bakarka, akordeoia bakarka eta bi musika tresnak aldi berean entzun ahal izango dira. Félix Ibarrondo eta Luis De Pablaren obrak izango dira hasieran eskainiko dituztenak.

Atal hau osatzeko Gabriel Erkorekak txistu eta akordeoi-rako eta Ibarrondok akordeoi-rako sortutako obrekina osatuko dute.

Kontzertuaren bigarren zatian, berriz, txistu familia izango da nagusi; baxu bikotea eta laukoteak. Gainera, bi estreinaldi izango dira. Bata, Tomás Arangüésekin Silboberrirentzako sortutako txistu laukotearentzako izango da. Bestea, Francisco García Álvarezekin sorkuntza izango da.

Aldarrikapenerako tartea azokan

Sarek manifestazioa deitu du abenduaren 8rako



Manifestazioarako deia egin zuen astelehenean Sarek, Durangon.

> ALDARRIKAPENAK M.O./J.G.

Azokak Euskal Herri osotik etorritako jendea batzen duela baliatuta, aldarrikapenerako tartea ere izaten da Durangon. Abenduaren 8rako manifestazioa deitu du Sare mugimenduak. Eguerdiko 12:30ean

hasiko da Landakon. “Egoera urgentea da, minutu oro da erabakigarria”, adierazi zuten Teresa Toda Sareko ordezkariak eta Gotzone Lopez de Luzuriaga gaixotutako preso ohiak, asteon emandako prentsurrekoan. Larriki gaixorik dauden hain-

bat euskal preso politikoren senideek parte hartu dute agerraldi horretan. Bertan izan dira Gorka Fraile durangarraren izeba, Ibon Iparragirre ondarrutarraren ama eta Aitzol Gogorza oreretarraren ama. Pablo Gorostiaga preso ohi ere izan da mahaian, eta zenbait sarekide ere bertaratu dira.

Teresa Todak Madrileko eta Parisko gobernuak kritikatu ditu: “Euskal jendartean bakearen eta konponbidearen aldeko urratsak eta aldarrikapenak nagusi badira ere, Madrileko eta Parisko gobernuak sufrimendua eragiten segitzen dute”. Kartzeletako “politika gogorra” ez dutela aldatu esan du, eta preso gaixoena dela horren “adierazle latzena”. Preso horiek kartzelan mantenduta, giza eskubideen adierazpen unibertsala urratzea egotzi die gobernuari.

Durangoko Ernaik ere manifestaziorako deia egin du abenduaren 6an, arratsaldeko 19:00etan azokatik abiatuta.

Azoka alternatiboa

Durangoko Sapuetxe Gazte-txeak azoka alternatiboaren 16. aldia antolatuko du aurten. Kontzertuak, tailerrak, gogoe-tak eta azoka alternatiboa prestatu dituzte.

Doako autobus zerbitzua Landako Gunera joateko

> GARRAIOA Itsaso Esteban

Inguruko herrietako aparkalekuak eta Landa Gunea lotuko dituen doako autobus-zerbitzua ipini dute, aurten, lehenengoz, Durangoko Azokara datozenek aparkatzea errazteko. Iurretako eta Abadiñoko merkatalgune eta industrialdeetan atonduko dituzten aparkalekuetan autoa uzten dutenek, 30 minutuko maiztasunagaz ibiliko den autobusa izango dute aukeran, 10:00etan hasi eta 22:00ak arte.

Iurretan, suhiltzaileen albotik aparkalekuan (autopista irteeran), Mallabierna industrialdean eta Arriaundi industrialdean hartu ahalko da Landako Gunerako autobusa. Abadiñon, Sabeco-Garbigunean, Astolabeitia industrialdean, Astolako autobus geltokian, Trañabarrenen, eta Eroski merkatalgunean egingo ditu geldialdiak. Euskotrenek ere zerbitzu bereziak eskainiko ditu, eta Gipuzkoatik datozen trenen maiztasuna areagotuko du.

Azoka egunetan garraio publikoa erabiltzeko deia egin du Gerediaga elkarteak.

“Erabiltzaile eta gozatzaile moduan ezagutu izan dut bizi guztian Durangoko Azoka”

‘Itsasoari begira’ dokumentala aurkeztuko du gaur, Irudienean, eta Gerediaga Elkarteagaz lanean jardungo da azoka egunetan

> AKUILUA Itsaso Esteban ‘Itsasoari begira’ dokumentala Irudienean aurkezteak zer sentazio sortzen dizu?

Ohore handia da, gure lan bat nire herrian, eta gainera, Durangoko Azokaren euskal kulturaren plazan ematea. Aukera proposa da, bestalde, “egiten zabilzan pelikula hori noiz ikusi ahalko dogu ba?” galdetzen duen jendeari “oraintxe duzu aukera” erantzuteko.

Zelan sartu zinen ‘Itsasoari begira’-ren proiektuan?

Lorea Perez de Albéniz lankide eta lagunagaz, 2011. urtean sorturiko proiektua da dokumentalarena. Lorearen lagun baten alabak gaixotasun arraro bat dauka, eta horrelako ume battegaz bizitzea zelakoa den kontatzeko beharra sortu zitzaion Loreari. Dokumentala egitea proposatu zidan, eta zalantzarik egin barik, baietz esan nion.

Zelakoa izan da sorkuntza?

Polita eta gogorra. Diru-laguntza txikia izan dugu, eta horrek eragina izan du lanerako izan ditugun baliabideetan. Emaitzagaz pozik gaude. Izan ere, hamar lagun inguruko taldea ibili gara lanean, eta asko inplikatu gara denok proiektuagaz. Geldoa izan da prozesua, eta esfortzu handia egin behar izan dugu, lan horretaz aparte beste egiteko asko daukagulako denok ere.

Zein proiektutan egin izan duzu Perez de Albénizegaz lan?

Telebistan jardun gara biok urte askoan lanean, hainbat programatan: *Jaiak*-en hasi ginen, *Betizu*-n ibili ginen...

Itsasoren bizitza kontatzen du dokumentalak?

Bai, Itsasoren egunerokotasuna. Izan ere, inguruan kasuren bat eduki ezean, oso urrutiko kontua da askorentzat gaixotasun arraroena. Sarritan ez dugu jakiten zelan begiratu gurasoei, edo zelan berba egin ume horiei... Errealitate hori gizarteari hurbiltzea izan da dokumentalagaz egin gura izan duguna. Itsasoren istorioaren bitartez horrelako jendearen bizitza normaltzen lagundu nahi genuke. Batzutan badirudi extralurtarrak direla, baina beste edozeinek dauzkagun behar berberak dituzte; maitatuak izatea eta normaltasunean bizitzea.

Aurrerantzean dokumentala beste leku batzutan ere emateko asmorik baduzue?

Ez dugu uste zinema areto komertzialetan zabaltzeko moduko lana denik, baina badugu asmoa zinema jaialdietara eramaten saiatzeko. Ondoren, herrietako kultur etxeetan eta zineklubetan ere ematea gurako genuke. Eskoletan lantzeko ere film proposa dela uste dugu, gehienbat, gaiaren inguruko eztabaida sortzeko eta hausnarketa bultzatzeko.

Ikusi dutenengan eragin du filmak gogoeta hori?

Bai, gaiari buelta batzuk ematea behintzat bai. Edo “egoera horretan zer egingo nuke nik?” geure buruari galdetzea. Erreakzioak ere, askotarikoak sortu ditu dokumentalak. Gogoeta egitera zaramatza Itsasoren ama horrelakoak esaten entzuteak: “Bizi egin behar dut:

tokatu zaidan egoera honekin egun osoa triste eta negarrez bango, ez nintzateke biziko!”

Zelan bizi izan duzu Durangoko Azoka orain arte?

Erabiltzaile eta gozatzaile moduan ezagutu izan dut bizi guztian Durangoko Azoka. Azokako egunetan, giroan atzera eta aurrera ibili izan naiz beti. Txiki-txikitatik bizi izan dut Durangoko Azoka: Merkatu plazako hotza gogoratzen dut, edo dirutxo bat ateratzeko publikizitatea banatzen zelan ibiltzen ginen...

Aurtengoa berezia izango da zuretzat, Gerediagaagaz lanean jardungo zarelako baita, ezta?

Bai, protokolo arloan lanean ibiliko naiz, gunez gune, egunero, Gerediaga Elkarte zuzendaritzako kideekin. Parte hartzaileen eta Gerediaga-aren arteko harremana zaintzea izango da gure egitekoa. Aukera oso polita izango da Azoka barrutik bizitzeko.

Zelan baloratzen duzu azokak izan duen eboluzioa?

Euskal Herriko kulturaren plaza inportanteena da, eta azken urteetan martxan ipini diren gune horiek guztiek asko aberastu dute: dena daukagu eskura, eta gure kasuan, gainera, herrian bertan. Oso gustuko dut.

Dokumentala amaituta, zer proiektu duzu esku artean?

Gauza askotan ibili naiz azken aldian. Urte askoan ikusentzunezkoen arloan, ETBn, egin dut lan, eta duela urte bi lan barik

geratu nintzen. Hainbeste urtez lanbide berean jardun eta gero, galduta sentitzen zara, bat-batean, nondik jo ez dakizula. Nire kasuan, argazkigintzan ere urte askoan jardun naizenez, zaletasun horregaz loturiko hainbat lanetan ibili naiz. Familiei argazkiak egiten, sormen tailerrak ematen... Autoerretratuari buruzko ikastaro bat ematen ere banabil, bigarren urtez, Durangoko Andragunean. Oso gustura nabil; autoestima, ahalduntzea, eta identitatea lantzen ditugu, argazkigintzaren bidez.

Zure familia-koen argazkiak eta autoerretratuak asko landu dituzu azkenaldian, ezta?

Familia eta argazkigintza uztartzeko modu proposa dela ohar-tu naiz. Horrela deskubritu nuen autoerretratu mundua. Denbora faltagatik, gauzak aukera dagoenean egiten ditut, abiada baten... Horrek eraman nau hurbilen dudan errealitate horren argazkiak egitera.



**ESKURAGARRI DAUDEN
AZKEN ETXEBIZITZA,
GARAJE ETA LOKALAK**

- 2 logelako etxebizitzak, 194.000 eurotik hasita.
Trastelekua eta garajea prezioan sartuta.
- Etxeek horma-armairuak, domotika eta doako internet konexioa dauzkate

**946 814 495
650 397 007**

www.promotoraargolabe.com

2016ko udaberri aurretik emango dira etxeak

Logela bateko eta biko azken pisuak!

Eraikitze lanen 2. fasea

